

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 1723

*42/2022 EBAZPENA, apirilaren 11koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitaratzea Google Cloud Emea Limited enpresarekin sinatutako hitzarmena, Hezkuntza Saileko ikastetxeetan Google Workspace for Education zerbitzuak erabiltzekoa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta behar den publikotasuna emateko asmoz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Google Cloud Emea Limited enpresarekin sinatutako hitzarmena (eranskina), Hezkuntza Saileko ikastetxeetan Google Workspace for Education zerbitzuak erabiltzekoa.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 11.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO  
ZUZENDARIAREN APIRILAREN 11KO 42/2022 EBAZPENARENA

## EAEko ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA GOOGLE CLOUD EMEA LIMITED-EN ARTEKO HITZARMENA, GOOGLE WORKSPACE FOR EDUCATION ZERBITZUAK HEZKUNTZA SAILEKO IKASTETXEETAN ERABILTZEKO

### ELKARTURIK

Batetik, Jokin Bildarratz Sorron jauna, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, lehendakariaren irailaren 7ko 25/2020 Dekretua betez (2020ko irailaren 8ko EHAA, 177. zenbakia), 71/2021 Dekretuak (otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) ematen dion eskumena baliatuta ("**Bezeroa**").

Bestetik, **GOOGLE CLOUD EMEA LIMITED** ("**Google**"), Irlandako legeriarekin bat eraturako elkarte (egoitza soziala: 70 Sir John Rogerson's Quay, Dublin 2, Irlanda).

Bereizirik, banaka, Aldea eta batera, Aldeak.

Aldeek, parte hartzen duten kontzeptuan, ziurtatu egiten dute beren ordezkartzen indarraldia, eta elkarri aitortzen diote behar besteko lege-gaitasuna dutela Lankidetzaren Hitzarmen hau ("**Hitzarmena**") sinatzeko, eta, horretarako, honako hau

### AZALTZEN DUTE:

- I. Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Sailaren bidez, hezkuntzaren eraldaketa digitalaren alde egiten ari dela Europako Agenda Digitaleko eta Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiako aurreikuspen eta edukiekin bat.
- II. Hezkuntza Sailari dagokiola sistema eta baliabide informatikoak diseinatu eta ezartzea, hezkuntza-sistema informazioaren gizartearen eskakizunetara behar bezala egokitzeko xedez.
- III. Googleren helburuetako bat dela hezkuntzaren hobekuntza sustatzea, eta, horretarako, honako hauek baliatzea: berrikuntza teknologikoa, software eta hardware konponbideak, eta ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen formakuntza eta prestakuntza hobea xede duten hezkuntza-programak.
- IV. Testuinguru horretan, Googlek Workspace for Education, konponbide teknologikoa hornitzen duela, hau da, hezitzaileek eta ikasleek elkarrekin berri eta ikasteko aukera ematen duen tresna-paketea.
- V. Hezkuntza Sailak Workspace for Education erabili nahi duela Euskal Autonomia Erkidegoko mendeko ikastetxeetan.
- VI. Horretarako, Aldeek adostu dute Googlek Workspace for Education hornituko diola Hezkuntza Sailari, bat etorritik honako klausula hauekin:

### KLAUSULA OROKORRAK

#### 1. Xedea.

- 1.1. Hitzarmen honen xedea da Aldeen artean lankidetzaren baldintzak ezartzea Hezkuntza Sailak Zerbitzuak erabil ditzen.

1.2. Aldeek aitortzen eta onartzen dute Zerbitzuen erabilera Hitzarmen honen parte diren eta bertan txertatuta dauden akordio hauek arautzen dutela:

- Hitzarmen honen 1. eranskin gisa jaso diren Workspace for Education zerbitzuaren Baldintzak ("**Workspace for Education-en baldintzak**"), eta
- Datuen Tratamenduaren Gehigarriaren azken bertsioa. Hemen eskura daiteke edozein unetan: [https://workspace.google.com/terms/dpa\\_terms.html](https://workspace.google.com/terms/dpa_terms.html). Hitzarmena sinatzeko unean indarrean dagoen bertsioaren itzulpena Hitzarmen honen 2. Eranskin gisa atxiki da, erreferentzia gisa.

## 2. Definizioak.

Hitzarmen honetan hizki larriz dauden termino guztiak Workspace for Education-eko baldintzetan edo Datuen Tratamenduaren Gehigarrian ematen zaien esanahi bera dute, salbu eta kontrakoa berariaz adierazten ez bada.

## 3. Eraginkortasuna eta Indarraldia

Hitzarmen hau Indarrean Sartzen den Datan hasiko da ondorioak izaten, eta indarrean egongo da lau (4) urtez data horretatik aurrera (el "**Indarraldia**"). Hala ere, Indarraldi hori amaitu aurreko edozein unetan, Aldeek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako, edo hura azkentzea.

## 4. Aldeen jarduketak.

Hitzarmen honen xedea behar bezala betetzeko, Aldeek jarduketa hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen dute:

### 4.1. Hezkuntza Sailaren jarduketak

- 4.1.1. Googlaren laguntzaz, Zerbitzuak ezartzeko faseak definitu eta gauzatzea.
- 4.1.2. Sailaren mendeko ikastetxeetako irakasle eta ikasleei Zerbitzuetarako sarbidea erraztea eta sarbideak administratzea.
- 4.1.3. Zerbitzuak hedatzeko proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak izatea.
- 4.1.4. Lurralde bakoitzeko ikastetxeetako irakasleen etengabeko prestakuntzako aholkularitzen prestakuntza-plana eta Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetako irakasleen prestakuntza-plana diseinatzen eta gauzatzen laguntzea, Zerbitzuak ezartzeko proiektua arrakastatsua izan dadin.
- 4.1.5. Googlerekin lankidetzan aritzea Sailak eta haiek izendatutako irakasleek jarraipen-bileretan parte hartuta, proiektuaren garapena aztertze lantalde misto bat sortzeko, bai eta dauden Google aplikazioetan funtzionalitate berriei buruzko ideiak emateko edo aplikazio berriak egiteko aukera aztertze ere, eta Sailaren mendeko ikastetxeetan lantalde hori osatzen duten irakasleak hautatzeko aukera izatea.
- 4.1.6. Hitzarmen honen eremuan dauden ikasleentzat betatesters talde espezifiko bat hautatzea, Googlek eskainitako Early Adopter Program-ean sartzeko aukera izango duena, zerbitzuen funtzionalitate eta/edo tresna berriak probatzeko.

4.1.7. Sailaren mendeko ikastetxeen artean Zerbitzuen berri ematea eta horiek hartzea sustatzea.

#### 4.2. Googleren jarduketak

4.2.1. Sailari Zerbitzuak hornitzea Indarraldian, Hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera.

4.2.2. Sailaren esku hartzea laguntza-baliabideak, Zerbitzuak hedatzeko faseak behar bezala gauzatu ahal izateko.

4.2.3. Sailak hala eskatuta, Sailarekin lankidetzan aritzea, Googlek ziurtatutako hezitzaileen bidez (Googlekoak edo kanpokoak) Sailaren mendeko ikastetxeetako irakasleen etengabeko prestakuntzako aholkularitzen prestakuntza-plana diseinatzeko eta gauzatzeko, eta prestakuntza horiek ziurtatzea Google Certified Trainer agiri ofizialaren bidez.

4.2.4. Sailarekin lankidetzan aritzea jarraipen-bileretara joateko eta proiektuaren garapena aztertzeke, bai eta dauden Google aplikazioetan funtzionalitate berriei buruzko ideiak emateko edo aplikazio berriak egiteko aukera aztertzeke ere, eta Googlek lantalde horretan Googleren ordezkariak hautatzeko aukera izatea.

4.2.5. Sailaren talde teknikoak Early Adopters Program-etarako sarbidea izatea erraztea, Zerbitzuen funtzionalitate edo tresna berriak probatzeko, kasu bakoitzaren errekerimenduen arabera.

#### 5. Konpromiso ekonomikorik eza.

Aldeek aitortu eta onartu egiten dute Hitzarmen honetan ezarritako jarduketak Aldeen kontraprestazio ekonomikorik gabe gauzatu direla. Hortaz, argitze aldera, Hitzarmen hau doakoa da.

#### 6. Ez betetzeagatiko ondorioak.

Hitzarmen honetan jasotako ondorioez gain, Aldeetako batek ez baditu Hitzarmen honetan adostutako konpromisoak betetzen, horiek bete dituen Aldeak Hitzarmena suntsiarazi ahal du alde aurretik, Workspace for Education-en baldintzen 8.3 klausulan (Ez betetzeagatiko amaiera) xedatutakoarekin bat etorritik.

#### 7. Hitzarmena iraungitzea.

Honako hauek dira Hitzarmena iraungitzeko arrazoiak:

7.1. Hitzarmenean deskribatutako konpromiso guztiak behar bezala betetzea.

7.2. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Aldeetako bat suntsiarazteko kausaren batean egotea. Honako hauek dira:

7.2.1. Hitzarmenaren indarraldia amaitzea eta hura luzatzeko erabakirik ez hartzea.

7.2.2. Aldeak ados hartzea.

7.2.3. Aldeek bere gain hartutako konpromisoak ez betetzea eta ez zuzentzea, 6. klausulan (Ez betetzeagatiko ondorioak) ezarritakoarekin bat.

7.2.4. Epaileak hitzarmena deuseztatzeke erabakia hartzea.

7.2.5. Hitzarmenean edo aplikagarria den araudian aurreikusi den eta goian jaso ez den beste edozein arrazoi.

## 8. Jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordea.

8.1. Aldeek jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordea ezarriko dute, Hitzarmen honetako jarduketak eta hartutako betebeharrak gauzaten direla gainbegiratzeko. Batzordea Googlek eta Sailak izendatutako ordezkariak osatuko dute, alde bakoitzeko gehienez ere bi (2) ordezkariak.

8.2. Batzordea Aldeek gutxienez 15 egun lehenago idatziz adostutako egunean bilduko da. Batzordearen bilerak aurrez aurre edo modu telematikoan egin ahalko dira, Aldeek adosten dutenaren arabera.

8.3. Jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordeari dagokio Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortutako arazoak ebaztea, bai eta Hitzarmenaren edozein aldaketa proposatzea ere.

## 9. Miszelanea

9.1. Interpretazioa. Hitzarmen hau osatzen duten atalen artean arazorik sortzen bada, honako lehentasun-hurrenkera (lehentasunaren beheranzko hurrenkera) honen arabera ebatziko da: Datuen Tratamenduaren Gehigarria, Workspace for Education-en Baldintzak eta Hitzarmenaren Klausula Orokorrak.

9.2. Uko egiterik eza. Hitzarmen honetan aurreikusitako edo Hitzarmenetik eratorritako eskubide edo ekintza bat ez gauzatzek edo berandu gauzatzek ez du berekin ekarriko eskubide edo ekintza hori (edo beste edozein) baliatzeari uko egitea.

9.3. Zatigarritasuna. Hitzarmen honen klausula bat (edo klausula baten zati bat) baliogabetzat, legez kontraktat edo ez aplikagarritzat jotzen bada, Hitzarmenaren gainerako atalek indarrean jarraituko dute.

9.4. Izaera, aplikatzea, legeria eta jurisdikzioa. Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta ezain zaio aplikatu 9/2017 Legea (azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, SPKL), SPKLren 6.1 eta 6.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta 40/2015 Legearen (urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) Atariko Tituluaren VI. Kapituluaren aurreikusitako hitzarmenaren araubide juridikoaren mende dago. Hitzarmen hau eta hartatik erator daitekeen edozein arazo edo gatazka Espainiako legearen mende daude eta gatazkak Madril hiriko auzitegien eskumenak izango dira eta hark ebatziko ditu.

Eta dagozkion ondoreetarako jasota gera dadin, eta ados daudela adierazteko, Aldeek Hitzarmen hau sinatu dute jarraian zehazten den egunean.

**Hezkuntza Saila**

**Google Cloud EMEA Limited**

Sinadura:

Sinadura:

Izena:

Izena:

Kargua:

Kargua:

Data:

Data:

# 1. ERANSKINA

## WORKSPACE FOR EDUCATION ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Workspace for Education Zerbitzuaren Baldintza hauek arautu egiten dute Sailak (Hitzarmen honetan, Bezeroa) nola erabili behar duen zerbitzua eta indarrean sartuko dira Hitzarmena Indarrean Sartzen den Datuan.

### 1. Zerbitzuak ematea

**1.1 Zerbitzuak erabiltzea.** Indarraldian, Googlek Hitzarmenaren arabera emango ditu Zerbitzuak, Zerbitzu Mailako Akordioa barne. Bezeroak Eskaera Inprimakian edo Hitzarmen honen arabera aplikatu daitezkeen Birsaltzailearen Eskaeran eskatutako Zerbitzuak erabil ditzake.

**1.2 Administrazio Kontsola.** Bezeroak sarbidea izango du Administrazio Kontsolara, eta harekin Zerbitzuen erabilera kudeatu ahalko du.

### 1.3 Zerbitzuak erabiltzeko kontuak eta egiaztapena.

**(a) Kontuak.** Bezeroak Kontu bat izan behar du Zerbitzuak erabiltzeko eta bera izango da kontua sortzeko emandako informazioaren arduraduna, bai eta Kontuaren pasahitzen segurtasunaren eta kontuaren edozein erabileraren arduraduna ere. Googlek ez du Bezeroari hainbat Kontu emateko betebeharririk.

**(b) Zerbitzuak erabiltzeko egiaztapena.** Bezeroak egiaztatu egin behar du Domeinuko Posta Elektronikoko Helbide bat edo Domeinu Izen bat Zerbitzuak erabiltzeko. Bezeroak ez badu Domeinuko Posta Elektronikoko Helbide hori erabiltzeko baimen baliagarriarik edo ez badu edo ez badu kontrolatzen Domeinu Izen hori, Googlek ez du betebeharririk izango Bezeroari Zerbitzuak emateko eta Kontua ezabatu ahal izango du aurrez jakinarazi gabe.

**1.4 Gehitutako baldintzak.** URLen Baldintzak, Zerbitzuen Baldintza Espezifikoak eta Datuen Tratamenduaren Gehigarria barne, Hitzarmen honetan gehitzen dira erreferentzia horren bidez. Baliteke Bezeroak Datuen Tratamenduaren Gehigarria onartu behar izatea Administrazio Kontsolaren bidez, baina arrazoi tekniko edo operatiboengatik baino ez. Onarpen horrek ez die eragingo Hitzarmen honetan edo Datuen Tratamenduaren Gehigarrian xedatzen diren aldean eskubide eta betebeharririk.

### 1.5 Aldaketak.

**(a) Zerbitzuak.** Googlek merkataritzaren ikuspegitik zentzuzkoak diren aldaketak egin ditzake zerbitzuetan, egokitzen jotzen duenean. Googlek Bezeroari jakinaraziko dio Bezeroak Zerbitzuak erabiltzeari nabarmen eragiten dion aldaketa materialen bat egiten badu, eta Bezeroak Googlerekin adostu badu aldaketa horri buruzko informazioa jasotzea.

**(b) URLen baldintzak (Datuen Tratamenduaren Gehigarria izan ezik).** Googlek URLen Baldintzak alda ditzake noiz edo noiz. Edozein aldaketa material egiten badu, Bezeroari jakinaraziko dio. Googlek dagokion Zerbitzu Mailako Akordioaren webgunearen bidez jakinaraz diezazkioke Bezeroari Zerbitzu Mailako Akordioan egindako aldaketa materialak. URLen Baldintzetako aldaketa materialak jakinarazpena egin eta 30 egunera jarriko dira indarrean, honako hauek izan ezik: (i) Zerbitzu Mailako Akordioaren aldaketak, baldin eta eragin kaltegarri nabarmena badute. Horiak jakinarazpena egin eta 90 egunera jarriko dira indarrean; eta (ii) Zerbitzu edo funtzio berriei aplikatu dakizkizkiekeen aldaketak. Horiak berehala jarriko dira indarrean. 1.5(b) atal hau (Aldaketak: URLen Baldintzak, [Datuen Tratamenduaren Gehigarria izan ezik]) ezin zaie aplikatu Datuen Tratamenduaren Gehigarrian egiten diren aldaketei.

**(c) Datuen Tratamenduaren Gehigarria.** Googlek Datuen Tratamenduaren Gehigarria baino ezin du aldatu, baldin eta aldaketa horiek aplikagarriak diren legeak eta araudiak, agindu judizial bat edo erakunde arautzaile batek edo gobernu-agentzia batek argitaratutako jarraibide bat betetzeko beharrezkoak badira; aldaketa horiek Datuen Tratamenduaren Gehigarrian egitea berariaz baimenduta badago; edo aldaketa horiek

(i) merkataritzaren ikuspegitik arrazoizkoak badira;

- (ii) Zerbitzuen segurtasun orokorraren gradu-beherapena eragiten ez badute;
- (iii) Googleren aldetik "Bezeroen Datu Pertsonalen" tratamenduaren mugarik ezabatzen eta aplikazio-eremua zabaltzen ez badute, Datuen Tratamenduaren Gehigarriko "Tratamenduaren Aplikazio Eremua" atalean ezarritakoaren arabera; eta
- (iv) ez badute eragin material kaltegarriarik Datuen Tratamenduaren Gehigarriak Bezeroari ematen dizkion eskubideetan.
- Googlek, 1.5(c) atal honen (Aldaketak: Datuen Tratamenduaren Gehigarria) arabera, aldaketa materialen bat egiten badu Datuen Tratamenduaren Gehigarrian, Datuen Tratamenduaren Gehigarria agertzen den webgunean argitaratuko du.
- (d) **Zerbitzu Nagusiak etetea.** Googlek gutxienez 12 hilabete lehenago jakinarazi beharko dio Bezeroari Zerbitzu Nagusietako baten (edo lotutako edozein funtzio garrantzitsu) emakida eten egin behar badu, baldin eta Zerbitzu Nagusi edo funtzio hori ez bada ordeztzen antzeko ezaugarriak dituen beste Zerbitzu Nagusi edo funtzio batekin. 1.5(d) (Zerbitzu Nagusiak etetea) atal honetan aurreikusitako ezerk ez du mugatzen aplikagarriak diren legeak betetzeko, segurtasun-arrisku handi bati erantzuteko edo arazo tekniko edo ekonomiko larriak ekiditeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko Googlek duen gaitasuna. 1.5(d) (Zerbitzu Nagusiak etetea) atal hau ez zaie aplikatzen Zerbitzu Gehigarriari, ez eta hedapen orokorraren aurreko Zerbitzu, eskaintza edo funtzioei ere.
2. **Ordainketa-baldintzak.** Hitzarmen honetako Zerbitzuak doan emango ditu Googlek. Indarraldiko uneren batean Bezeroak ordaindu beharreko zerbitzuak eskatzen badizkio Googleri, orduan aldeek Hitzarmen honen gehigarri bat sinatuko dute, ordaintzeko beharra arautuko duten klausulak sartzeko.
3. **Bezeroaren betebeharrak.**
- 3.1 **Erabilera baimenduak.** Honako hauek erabil ditzakete Hitzarmen honetako Zerbitzuak: (a) <https://support.google.com/a/answer/134628?hl=es> webgunean eta aurrerago webgune hori ordezkari dezakeen URL batean zehaztutako irizpideak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko ikastetxeak, eta (b) irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk (aplikagarriak diren legeetan definitzen direnak).
- 3.2 **Betetzea.** Bezeroak: (a) bermatu egingo du berak eta bere Azken Erabiltzaileek Hitzarmen honetan xedatutakoa betetzen dutela Zerbitzuak erabiltzean, (b) merkataritzaren ikuspegitik arrazoizkoak diren neurriak hartuko ditu, Zerbitzuetarako baimenik gabeko sarbidea edo erabilera ekidin eta amaitzeko, eta (c) berehala jakinaraziko dio Googleri Zerbitzuak, bere kontua edo bere pasahitza baimenik gabe erabiltzen direla antzematen badu. Googlek eskubidea du ikertzeko Bezeroak Erabilera Onargarriaren Politika (EOP) urratzen duen, eta, ondorioz, Bezeroaren datuak berriki daitezke.
- 3.3 **Pribatutasuna.** Bezeroa arduratuko da honako hauek baimentzeko beharrezkoak diren baimenak jaso eta abisuak emateaz: a) Bezeroak Zerbitzuak erabili eta jasotzea; eta b) Bezeroak ematen dituen datuak (Bezeroaren Datuak barne) eskuratu, biltegitatu eta tratatzea, Hitzarmen hau betetzeko.
- 3.4 **Murrizketak.** Bezeroak ezin izango die baimenik eman Azken Erabiltzaileei honako hauetarako: (a) Zerbitzuetatik eratorritako obrak kopia, aldatu edo sortzeko; (b) atzeranzko ingeniartzako teknikak aplikatzeko, Zerbitzuen iturburu-kodeak deskonpilatu, itzuli, desmuntatu edo beste modu batera kode horiek zati batean edo osorik ateratzen saiatzeko (salbu eta murrizketa hori aplikagarria den legeriak berariaz debekatzen badu); (c) Zerbitzuen zati bat edo Zerbitzu osoak saldu, berriz saldu, azpilizentziatu, transferitu edo banatzeko; ez eta (d) Zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko ere (i) Arrisku Handiko Jardueretarako; (ii) EOP urratzeko moduan; (iii) aplikagarria den edozein tasa ordaintzea ekiditeko (adibidez, Bezeroaren Kontu bat baino gehiago sortuta erabiltzaile bakar gisa baliatzeko edo Zerbitzuaren erabilera-muga edo -kuota espezifikoak baztertzeko); (iv) Googleren aurretiazko idatzizko baimenik gabe kriptodirua meatzaritzarako; (v) larrialdietako deiak egin edo jasotzeko, salbu eta Zerbitzuen Baldintza Espezifikoetan kontrakoa adierazten ez bada; (vi) Estatu Batuetako Estatu Departamentuaren armen nazioarteko trafikoari buruzko erregelamenduari (ITAR) eta arma-trafikoari buruzko araudi aplikagarriari lotutako material edo jardueretarako; (vii) Esportazioak Kontrolatzeko Legeak ez betetzeko edo ez betetzeko moduan; edo (viii) Estatu Batuetako



aseguru medikuen gardentasun eta erantzukidetasun legearen (HIPPA) mendeko informazio medikoa transmititzeko, biltegitzeko edo tratatzeko, baldin eta HIPPA legearekin bat Enpresa Lankidetzako Kontratuaren indarrean dagoen zuzenketa batek baimentzen ez badu.

**3.5 Produktu Gehigarriak.** Googlek Produktu Gehigarriak jartzen ditu Bezeroaren edo haren Azken Erabiltzaileen esku. Produktu Gehigarrien erabilerak bete egin behar ditu Produktu Gehigarrien Baldintzak. Bezeroak Produktu Gehigarriak gaitu edo desgaitu ditzake edozein unetan Administrazio Kontsolaren bidez. Bezeroak gurasoen baimena lortu beharko du gaitu nahi dituen Produktu Gehigarrietan informazio pertsonala bildu eta erabiltzeko, 18 urtetik beherako Azken Erabiltzaile batek horiek eskuratu edo erabiltzea baimendu aurretik.

**3.6 Zerbitzuen administrazioa.** Administrazio Kontsolan, Bezeroak hainbat administratzaile izenda ditzake, eta horiek Administratzailearen Kontuetan sartu ahal izango dira.

Bezeroa arduratuko da a) Azken Erabiltzailearen Kontuen eta haiekin lotutako pasahitzen konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeaz; eta b) Azken Erabiltzailearen Kontuen erabileraz. Gainera, Bezeroak onartu egiten du ez direla Googleren erantzukizuna Bezeroarentzako edo edozein azken Erabiltzailearentzako Zerbitzuen administrazioa eta barne-kudeaketa.

**3.7 Erabilera desegokiak ikuskatzea.** Bezeroa da Bezeroaren Domeinu Izenean "abuse" eta "postmaster" aliasetara igorritako mezu elektronikoak ikuskatzeko, haiei erantzuteko eta beste edozein modutara tratatzeko arduradun bakarra. Nolanahi ere, Googlek alias horietara igorritako mezu elektronikoak ikuska ditzake, Zerbitzuen erabilera desegokiak identifikatzeko.

**3.8 Eskaera Epean Azken Erabiltzaileen Kontu gehigarriak eskatzea.** Eskaera Epean Azken Erabiltzaileen Kontu gehigarriak eska ditzake Bezeroak. Horretarako, Eskaera Inprimakia edo Birsaltzailearen Eskaera erabil ditzake, edo eskaera Administrazio Kontsolaren bidez igorri. Azken Erabiltzailearen Kontu gehigarri horiek iraupen hainbanatua izango dute eta aplikagarria den Eskaera Epearen azken egunean amaituko da.

#### 4. Etetea.

**4.1 EOP urratzea.** Googlek hautematen badu Bezeroak edo edozein Azken Erabiltzailek Zerbitzuak erabiltzean EOP urratzen duela, Bezeroari jakinaraziko dio eta urraketa zuzentzeko eskatuko dio. Bezeroak ez badu urraketa Googlek eskatu eta 24 orduan zuzendu, Googlek Bezeroak Zerbitzuez egiten duen erabilera, osorik edo zati batean, Eten dezake hura zuzendu arte. Zerbitzuak Ete ten badira, EOP urratzen duen edukia kendu ahal izango da.

**4.2 Ete teko bestelako kausak.** 4.1 atalean (EOP urratzea) xedatutakoa alde batera utzi gabe,

Googlek berehala Eten dezake Bezeroak Zerbitzuaz egiten duen erabilera, osorik edo zati batean (lotutako Kontuaren erabilera barne), baldin eta a) Googlek zentzuzko arrazoiak baditu uste izateko Bezeroak edo edozein Azken Erabiltzailek Zerbitzuez egiten duten erabilerak eragin kaltegarria izan dezakeela Zerbitzuetan, beste Bezero edo Azken Erabiltzaile batzuek Zerbitzuez egiten duten erabileran, edo Zerbitzuak emateko Googlek erabiltzen dituen sare edo zerbitzarietan; b) baimendu gabeko hirugarren batek Zerbitzuetara sarbidea badu; c) Googlek zentzuzko arrazoiak baditu Etetea aplikatu behar duela uste izateko, aplikatu beharreko edozein lege edo araudi betetze aldera; edo d) Bezeroak

3.3 (Murrizketak) atala edo Zerbitzuen Baldintza Espezifikoko urratzen baditu. Googlek edozein Etete baliogabetuko du

hura eragin duten inguruabarrak zuzentzen direnean. Bezeroak eskatuta, Googlek ahalik eta lasterren jakinaraziko dio Bezeroari Ete tearen arrazoiak, baldin eta aplikagarria den legeriak debekatzen ez badu.

#### 5. Jabetza Intelektualeko Eskubideak, Bezeroen Datuen babesa, oharrak eta Zerbitzuetan Marka Baliabideen erabilera.

**5.1 Jabetza Intelektualeko Eskubideak.** Hitzarmen honetan berariaz kontrakoa adierazten ez bada, Hitzarmenak ez dio aldeetako bati ere inolako eskubiderik ematen, inplizitua ala ez, edukia edo beste aldearen jabetza intelektualaren gainean. Aldeek adostutakoarekin bat etorritik, Bezeroa da Bezeroaren datuen gaineko Jabetza Intelektualeko Eskubide guztien titularra eta Google Zerbitzuen gaineko Jabetza Intelektualeko Eskubideena.

**5.2 Bezeroaren Datuen babesa.** Googlek Zerbitzuak emateko, Laguntza Teknikoko Zerbitzuak edo Bezeroak adierazitako beste neurri bat hartzeko baino ez ditu eskuratu eta erabiliko Bezeroaren Datuak. Aurreko esaldiaren esanahi orokorra mugatu gabe, Googlek ez ditu Bezeroaren Datuak erabiliko publizitatea egiteko eta ez du publizitatetik egingo Zerbitzuetan. Googlek neurri administratiboak, fisikoak eta teknikoak ezarri ditu eta mantendu egingo ditu Bezeroaren Datuak babesteko, Datuen Tratamenduaren Gehigarrian zehazten den bezala.

**5.3 Bezeroaren Oharrak.** Nahi duen guztietan, Bezeroak Zerbitzuei buruzko Oharrak edo iradokizunak egin ahalko dizkio Googleri ("Oharrak"). Bezeroak Oharrak egiten baditu, Googlek eta haren Erakunde Elkartuek mugarik gabe erabili ahalko dituzte, Bezeroaren aurrean betekizunik izan gabe.

**5.4 Zerbitzuen Marka Baliabideen erabilera.** Googlek Zerbitzuetan Bezeroak baimendutako Marka Baliabideak baino ez ditu erabiliko. Googlek Bezeroaren Marka Baliabideak webgunean Bezeroari edo haren Azken Erabiltzaileei Zerbitzuen berri emateko guneetan erabiliko ditu. Bezeroak erabilera horren xehetasunen berri eman ahalko du Administrazio Kontsolan. Googlek Googleren Marka Baliabideak erakutsi ahalko ditu webgune horretan, Zerbitzuak Googlek ematen dituela adierazteko.

**6. Laguntza Teknikorako Zerbitzua.** Indarraldian, Googlek Laguntza Teknikorako Zerbitzuak (LTZ) emango dizkio Bezeroari, LTZren Gidalerroen arabera, eta Bezeroak dagozkion Tasak ordaindu beharko ditu. LTZ maila batzuek aldian behingo gutxieneko Tasa eskatzen dute, webgune honetan adierazten den bezala: <https://workspace.google.com/terms/tssg.html>. Bezeroak bere LTZ maila murrizten badu hilabete bateko une batean, Googlek LTZ maila bera ematen jarrai dezake eta aldaketaren aurretik zuen Tasa bera aplikatu hilabete osoan.

## **7. Informazio Konfidentziala.**

**7.1 Betebeharrak.** Hartzaileak bere eskubideak egikaritu eta Hitzarmenaren araberrako betebeharrak betetzeko baino ez du erabiliko hedatzailearen Informazio Konfidentziala, eta zentzuzko arreta-neurri guztiak hartuko ditu, hedatzailearen Informazio Konfidentziala heda ez dadin. Hartzaileak honako hauei baino ezingo die eman Informazio Konfidentziala:

Erakunde Elkartuei, enplegatuei, ordezkariari edo aholkulari profesionali ("Ordezkariek"), baldin eta informazio horren berri izan behar badute eta idatziz konfidentzialtasuna gordetzea adostu badute (edo aholkulari profesionalen kasuan, beste arrazoi batzuegatik horretara behartuta badaude). Hartzaileak ziurtatu egingo du bere Ordezkariek jasotako Informazio Konfidentziala dagozkion eskubideak egikartzeko eta Hitzarmenean ezarritako betekizunak betetzeko baino ez dutela erabiliko.

**7.2 Beharrezko hedapena.** Hitzarmen honetan kontrakoa adierazten duen edozein xedapen alde batera utzi gabe, hartzaileak edo haren Erakunde Elkartuek ere hedatu ahal izango dute Informazio Konfidentziala aplikagarria den Legeak hala eskatuz gero, betiere hartzaileak edo haren Erakunde Elkartuek merkataritzaren ikuspegitik arrazoizkoak diren neurriak hartzen badituzte (a) beste aldeari lehenbailehen jakinarazteko Informazio Konfidentziala hedatu aurretik, eta (b) hedapena ekiditeko beste aldeak egiten dien zentzuzko eskaerari erantzuteko. Aurretik adierazitakoaren kalterik gabe, (a) eta (b) zuzenketa horiek ez dira aplikatuko baldin eta hartzaileak erabakitzen badu horiek betetzeak (i) Legezko Prozesu bat hauts dezakeela; (ii) Gobernuaren ikerketa bat oztopa dezakeela; edo (iii) pertsona bati kalte fisiko larriak edo heriotza eragin diezazkiokeela.

## **8. Indarraldia eta suntsiarazpena.**

**8.1 Hitzarmenaren Indarraldia.** Hitzarmen hau Indarrean Sartzen den Datu hasiko da ondorioak izaten, eta indarrean egongo da lau (4) urtez Indarrean Sartzen den Data horretatik aurrera ("Indarraldia").

**8.2 Berritzea.** Indarraldia amaitu aurreko edozein unetan, alderdiek gehienez ere lau (4) urterako berritzea edo luzatzea adostu ahal izango dute.

**8.3 Ez-betetzeagatik suntsiarazpena.** Aplikagarria den legeriak baimentzen duen neurrian, aldeetako edozeinek berehala suntsiaraz dezake Hitzarmena idatzizko abisu baten

bidez, baldin eta (a) beste aldeak Hitzarmenaren ez-betetze materiala egiten badu eta ez badu ez-betetze hori zuzentzen abisua jaso eta 30 egunera; edo (b) beste aldeak enpresa-jarduera eteten badu edo kaudimengabeziaren prozesuren batean badago eta prozesu horiek ez badira 90 egun baino lehen ezesten.

**8.4 Komenentziaz suntsiaraztea.** Bezeroak edozein unetan utz diezaiokie Zerbitzuak erabiltzeari. Bezeroak, halaber, edozein unetan suntsiaraz dezake komenentziaz Hitzarmena, idatzizko abisu baten bidez.

**8.5 Aplikagarria den legeriak ezarritako ebazpena eta legeak urratzea.** Googlek Hitzarmen hau edo edozein Eskaera Inprimaki suntsiaraz dezake berehala, idatzizko abisu baten bidez, zentzuzko arrazoiak baditu uste izateko (a) Bezeroak erabiltzen dituen Zerbitzuak etengabe emateak aplikagarriak diren legeak edo araudiak urra ditzakeela edo (b) Bezeroak ez duela bete edo Googlek Eroskeriaren aurkako edo Esportazioen Kontrolari buruzko edozein lege urratzea eragin duela.

**8.6 Hitzarmena suntsiaraztearen edo ez berritzearen ondorioak.** Hitzarmena suntsiarazten bada edo ez bada berritzen, eskubide guztiak edo Zerbitzuetarako sarbide guztiak (Bezeroaren Datuetarako sarbidea barne) eten egingo dira, baldin eta Hitzarmen honetan ez bada kontrakoa adierazten.

**8.7 Dirua ez itzultzeko eskubidea.** Hitzarmen honetan berariaz kontrakoa adierazten ez bada, Hitzarmen honen edozein atalen arabera (Datuen Tratamenduaren Gehigarria barne) suntsiarazten bada edo ez bada berritzen, Googlek ez du tasa itzultzeko betebeharririk izango.

**9. Publizitatea.** Bezeroak jendaurrean adieraz dezake Zerbitzuen erabiltzailea dela, betiere Marka Erregistratuen Gidalerroak betetzen baditu. Bezeroak, Zerbitzuei dagokienez, Googleren Marka Baliabideak erabili nahi baditu, Googleren idatzizko baimena lortu beharko du, Marka Erregistratuen Gidalerroetan zehaztutako prozedurari jarraikiz. Googlek Bezeroaren izena edo Marka Baliabideak sar ditzake Googleren bezeroen zerrenda batean, izan webguneetan, izan sustapen-materialetan. Googlek hitzez ere aipa dezake Bezeroa Zerbitzuen erabiltzailea dela. 9. atal honen arabera (Publizitatea), bi aldeek beharko dute bestearen baimena aurretik onartu den jendaurreko adierazpenaren antzeko ezaugarriak dituen jendaurreko adierazpena egiteko. Aldeetako edozeinen Marka Baliabideen erabilera guztiak Marka Baliabide horien Jabetza Intelektualeko Eskubideak dituen aldeari egingo diote mesede. 9. atal honen arabera (Publizitatea), aldeetako edozeinek idatzizko abisu baten bidez balio gabetu ahal izango du bestearen eskubidea lehenengoaren Marka Baliabideak erabiltzeko, erabilera eteteko arrazoizko epean.

**10. Adierazpenak eta bermeak.** Aldeetako bakoitzak adierazi eta bermatzen du (a) Hitzarmena sinatzeko ahalmen eta aginpide osoa duela, eta (b) Zerbitzua emateari, hartzeari edo erabiltzeari aplikagarri zaizkien lege eta araudi guztiak beteko dituela, dagokionaren arabera.

**11. Erantzukizunari uko egitea.** Hitzarmenean berariaz adierazten ez bada eta aplikagarria den legeriak baimentzen duen neurrian, Googlek ez ditu eskaintzen eta berariaz uko egiten die honako hauei: (a) edozein berme mota, izan berariazkoa, inplizitua, derrigorrezkoa edo beste edozein motatakoa, honako hauek barne: merkaturagarritasun-bermeak, xede jakin baterako egokitzapena, titulua, urraketarik eza edo Zerbitzuak akatsik edo etenik gabe erabiltzea; eta (b) Zerbitzuen bidez eskura daitekeen edukiari edo informazioari buruzko edozein adierazpen.

**12. Erantzukizunak mugatzea.**

**12.1 Zeharkako erantzukizunak mugatzea.** Aplikagarria den legeriak baimentzen duen neurrian eta bat etorritz 12.3 atalarekin (Erantzukizun mugagabeak), aldeetako batek ere ez du izango Hitzarmenetik eratorritako edo harekin lotutako inolako erantzukizunik (a) zeharkako, eratorritako, berezia den, ustekabeko edo zigortzeko edozein kalterengatik, ez eta (b) diru-sarrerak, irabaziak, aurrezkiak edo merkataritza-funtsak galtzeagatik edo lortu gabeko beste edozein irabazirengatik ere.

**12.2 Erantzukizunengatiko zenbatekoa mugatzea.** Hitzarmenetik eratorritako edo harekin lotutako kalteengatik alde bakoitzaren erantzukizun gehitu osoa honako hauetara mugatzen da: (a) 1.000 euro edo (b) Erantzukizuna eragiten duen gertakariaren aurreko 12 hilabeteetan Bezeroak ordaindutako tasak, zenbateko handiena.

**12.3 Erantzukizun mugagabeak.** Hitzarmen honetan ezarritako ezerk ez du baztertzeko edo mugatzen honako hauekin lotuta aldeek duten Erantzukizuna:

- (a) iruzurrezko jardueretan sartzea edo informazio faltsua ematea;
- (b) 13. atalaren arabera (Kalte-ordaina) betebeharrak;
- (c) beste aldearen Jabetza Intelektualaren Eskubideak urratzea;
- (d) Hitzarmenaren arabera dituen ordainketa-betebeharrak, halakorik balego;
- (e) dolo edo zabarkeria larria; edo
- (f) aplikagarria den legearen arabera baztertu edo mugatu ezin diren erantzukizun-alderdiak.

### 13. Kalte-ordaina.

**13.1 Googlek kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra.** Googlek Bezeroaren Kontuen bidez Zerbitzuak erabiltzen dituen Bezeroa edo haren Erakunde Elkartuak defendatuko ditu eta Erantzukizunetik libre mantenduko ditu Hirugarrenek abiarazitako edozein Legezko Prozesutan, baldin eta alegatzen bada Googleren edozein Zerbitzuko edo Marka Baliabideak urratu egiten dituela hirugarren horren Jabetza Intelektualeko Eskubideak.

**13.2 Bezeroak kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra.** Bezeroak Google eta Zerbitzuak eskaintzen dituzten haren Erakunde Elkartuak

defendatuko ditu eta Erantzukizunetik libre mantenduko ditu Hirugarrenek abiarazitako edozein Legezko Prozesutan, baldin eta prozesu hori honako hauen ondorioz abiarazten bada:

(a) Bezeroaren Datuak edo Bezeroaren Marka Baliabideak; edo (b) Bezeroak edo Azken Erabiltzaile batek Zerbitzuak erabiltzean EOP edo 3.3 atala betetzen ez bada (Mugak).

**13.3 Baztertzak.** 13.1 atala (Googlek kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra) eta 13.2 atala (Bezeroak kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra) ez dira aplikatuko baldin eta alegazioa honako hauek eragiten badute: (a) kalte-ordaina jaso duen aldeak Hitzarmena ez betetzea, edo (b) kalte-ordainak ordaindu dituen alderdiaren teknologien edo Marka Baliabideen eta Hitzarmenaren arabera kalte-ordaina ordaindu ez duen aldeak eman ez dituen materialen konbinazioa, Hitzarmenak konbinazio hori eskatzen ez badu behintzat.

**13.4 Baldintzak.** 13.1 atala (Googlek kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra) eta 13.2 atala (Bezeroak kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra) honako hauen arabera dira:

(a) Kalte-ordaina jaso duen edozein alde berehala eta idatziz jakinarazi beharko dizkio kalte-ordaina ordaindu duen aldeari Hirugarrenek abiarazitako Legezko Prozesuaren aurretik aurkeztutako alegazioak eta harekin elkarlanean aritu beharko du alegazioak eta prozesua bera ebazteko. 13.4(a) atal hau ez betetzeak Legezko Prozesu horren defentsa kaltetzen badu, kalte-ordaina ordaindu behar duen aldearen betebeharrak, kasuan kasuko 13.1 atalean (Googlek kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra) edo 13.2 atalean (Bezeroak kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra) adierazitakoak, kaltearen arabera proportzioan murriztuko dira.

(b) Kalte-ordaina jaso duen edozein alderdik Hirugarrenek abiarazitako Legezko Prozesuko kalte-ordainaren kontrol osoa eman beharko dio kalte-ordaina ordaindu duen alderdiari, honako baldintza hauekin: (i) kalte-ordaina jaso duen aldeak abokatu independente bat izendatu ahal du bere kontura; eta (ii) kalte-ordaina jaso duen alderdiak erantzukizunak onartzea, dirua ordaintzea edo edozein ekintza egitea (edo ez egitea) eskatzen duen edozein akordio gauzatzeko kalte-ordaina jaso duen alderdiaren alde aurreko idatzizko adostasuna beharko da, eta adostasun hori ez da arrazoirik gabe baldintzatuko, atxikiko edo atzeratuko.

### 13.5 Irtenbideak.

(a) Googlek zentzuz uste badu Zerbitzuek Hirugarrenen Jabetza Intelektualeko Eskubideak urra ditzakeela, Googlek honako hauek gauzatu ahal izango ditu, nahi izanez gero: (i) Bezeroak Zerbitzuak erabiltzen jarrai dezan beharrezkoak diren eskubideak lortzea; (ii) Zerbitzuak aldatzea, funtzionalitatea murriztu gabe, eskubide horiek urra ez daitezen; edo (iii) Zerbitzuak ordeztzea funtzionalitate berekoa den eta eskubide horiek urratzen ez dituen beste aukera baten bidez.

(b) Googlek uste badu 13.5(a) atalean zehaztutako irtenbideak ez direla merkataritzaren ikuspegitik arrazoizkoak, eten edo amaitutzat eman ahalko du Bezeroak Zerbitzuak erabiltzea.

**13.6 Betebehar eta eskubide eskusiboak.** Bi aldeek ebazteko duten beste edozein eskubide kaltetu gabe, 13. atala (Kalte-ordaina) da alde horiek Hitzarmen honen arabera duten irtenbide bakarra, Hirugarrenak atal horretan adierazten den Jabetza Intelektualeko Eskubideen urraketaekin lotuta jar ditzaketen alegazioei dagokienez.

**14. Birsalmentako bezeroak.** 14. atal hau (Birsalmentako bezeroak) soilik aplikatuko da Bezeroak Birsaltzaile baten Zerbitzuak eskatzen dituenean, Birsaltzailearen Akordio baten arabera (kasu honetan, Zerbitzuak "Birsalmentako Zerbitzuak" izango lirateke).

**14.1 Aplikagarriak diren baldintzak.** Birsalmenta Zerbitzuen ondoretarako:

- (a) Ez da aplikatuko Hitzarmen honen 2. atala (Ordaintzeko Baldintzak).
- (b) Birsaltzailearen tasak (halakorik balego) Birsaltzaileari ordainduko zaizkio zuzenean, eta Birsalmenta Zerbitzuaren prezioak Birsaltzailearen eta Bezeroaren artean baino ez dira erabakiko.
- (c) Bezeroak Zerbitzu Mailako Akordioako kredituak jasoko ditu, Birsaltzaileari dagozkionak.
- (d) 12.2 atala (Erantzukizun-zenbatekoaren muga) beste atal honek ordeztu du: "Hitzarmenetik eratorritako edo harekin lotutako kalteengatik alde bakoitzaren erantzukizun bateratu osoa honako hauetara mugatzen da: (a) 1.000 euro edo (b) Erantzukizuna eragiten duen gertakariaren aurreko 12 hilabeteetan Bezeroak Birsalmenta Zerbitzuengatik ordaindutako Birsaltzailearen Tasak, zenbateko handiena".
- (e) Zerbitzua berritza edo Birsaltzailearen Eskaerak Bezeroaren eta Birsaltzailearen artean adostuko dira.
- (f) "Eskaera Epea" terminoak, Hitzarmenean erabiltzen denaren arabera, Birsalmenta Zerbitzuak ematen hasteko datan edo berritzen diren datan (dagokionaren arabera) hasi eta Birsaltzailearen Eskaeran adierazitako unean amaitzen den epeari egiten dio erreferentzia, baldin eta ez bada Hitzarmenarekin bat etorritik lehenago eteten; eta
- (g) "Zerbitzuen hasierako data" terminoak, Hitzarmenean erabiltzen denaren arabera, Birsaltzailearen Eskaeran adierazitako hasierako datari egiten dio erreferentzia, edo halakorik zehazten ez bada, Googlek Birsalmenta Zerbitzuak Bezeroaren eskura jartzen dituen datari.

**14.2 Informazio Konfidentziala partekatzea.** Googlek Bezeroaren Informazio Konfidentziala partekatu ahal izango du Birsaltzailearekin, Ordezkarria den neurrian, 7.1 atalarekin (Betebeharrak) bat etorritik.

**14.3 Birsaltzailea Administratzaile.** Bezeroak nahi izanez gero, Birsaltzailea Bezeroaren Kontura edo Azken Erabiltzaileen Kontuetara sartu ahalko da. Googleri eta Bezeroari dagokienez, Bezeroa da honako hauen arduradun bakarra: (a) Birsaltzailea Bezeroaren edo Azken Erabiltzailearen Kontuetara sartzea; eta (b) Birsaltzailearen Akordioan Birsaltzailearen eta Bezeroaren arteko eskubide eta betebeharrak zehaztea, Birsalmenta Zerbitzuei dagokienez.

**14.4 Birsaltzailearen laguntza teknikoa.** Bezeroak aitortu eta onartu egiten du Birsaltzaileak Googleri jakinarazi ahal izango dizkiola Azken Erabiltzaileen datu pertsonalak, baldin eta beharrezkoak badira Birsaltzaileak Bezeroak Birsaltzaileari edo Birsaltzailearen bidez bideratzen duen edozein laguntza-gorabehera prozesatu ahal izateko.

**15. Zenbait gai.**

**15.1 Jakinarazpenak.** Googlek posta elektronikoz bidaliko dizkio Bezeroari Hitzarmenari dagozkion jakinarazpenak, Jakinarazpenen Helbide Elektronikora. Hitzarmenarekin bat etorritik, Bezeroak posta elektronikoz bidaliko dizkio Googleri jakinarazpenak, honako helbide honetara: legal-notices@google.com. Abisua jasotzat joko da mezu elektronikoa igortzen den unean. Bezeroa da Jakinarazpenen Helbide Elektronikoa Indarraldi osoan eguneratuta izatearen arduraduna.

**15.2 Posta elektronikoa.** Hitzarmenaren arabera, aldeek mezu elektronikoa erabili ahal izango dituzte idatzizko onepen- eta baimen-betekizunak betetzeko.

**15.3 Lagapena.** Aldeetako batek ere ezingo du Hitzarmen honen zati bat edo Hitzarmen osoa laga bestea aldearen baimenik gabe, salbu eta lagapen-hartzailea alde horren Erakunde Elkartua bada, baldin eta: (a) Lagapen-hartzaileak idatziz onartu badu Hitzarmen honen baldintzak beteko dituela; eta (b) alde lagatzaileak lagapenaren berri eman badio beste aldeari. Bestelako lagapen-aukerak erabat deuseztat hartuko dira. Bezeroak Hitzarmen hau lagatzen badio beste jurisdikzio bateko Erakunde Elkartu bati eta, ondorioz, Googleren erakunde kontratatzailean aldaketarik eragiten bada, <https://cloud.google.com/terms/google-entity> webgunean definitzen den bezala, Hitzarmen hau Googleren erakunde kontratatzaile berriari laga zaiola ulertuko da zuzenean.

**15.4 Kontrol aldaketa.** Aldeetako batek Kontrol aldaketa egiten badu, eta ez bada barne-berregituraketa edo -berrantolamendua (adibidez, akzioen salerosketaren, bat-egite baten edo bestelako merkataritza-eragiketa baten ondorioz), alde horrek idatziz jakinaraziko dio beste aldeari, Kontrol-aldaketa egin eta 30 egunera. Bezeroaren erakundeak irabazi-asmorik gabeko ikastetxe edo irabazi-asmorik gabeko bestelako erakunde izateari uzten badio, 3.1 atalean (Erabilera baimenduak) zehazten denaren arabera, Bezeroak berehala jakinaraziko dio Googleri.

**15.5 Ezinbesteko kasua.** Aldeetako batek ere ez du erantzukizunik izango bere kontroletik kanpo dauden inguruabarrak direla-eta (besteak beste ustekabeko gertaerak, hondamendi naturalak, terrorismoa, istiluak edo gerrak) betebeharrak ez betetzeagatik edo horiek gauzatzean atzeratzeagatik.

**15.6 Azpikontratazioa.** Googlek Hitzarmen honetako betebeharrak azpikontratatu ahal izango ditu. Hala ere, azpikontratutako betebeharren erantzule izaten jarraituko du Bezeroaren aurrean.

**15.7 Ordezkaritzarik eza.** Hitzarmen honek ez du sortzen aldean arteko agentzia-harremanik, ordezkaritzarik, merkataritza-elkartetik, edo aldi baterako elkarerik (joint venture).

**15.8 Uko egiterik eza.** Aldeetako batek ez badu baliatzen Hitzarmen honetako eskubideren bat edo atzerapenez baliatzen badu, ez da joko eskubideari uko egitetzat.

**15.9 Klausulen independentzia.** Hitzarmen honetako atal batek baliozkoa, legezkoa edo aplikagarria izateari uzten badio, Hitzarmenaren gainerako atalek indarrean jarraituko dute.

**15.10 Hirugarren onuradunik eza.** Hitzarmen honek ez die inolako onurarik ematen Hirugarrenei, betiere kontrakoa berariaz adierazten ez bada. Argigarri gisa, Googleren Erakunde Elkartuak 5.3 ataleko (Bezeroaren oharra) eta 7. ataleko (Informazio Konfidentziala) hirugarren onuradunak dira, eta Zerbitzuak ematen badituzte, 13.2 atalekoak (Bezeroak kalte-ordaina ordaintzeko duen betebeharra).

**15.11 Konpentsazio ekitatiboa.** Hitzarmen honetan ezarritakoak ez du, inola ere, aldeek konpentsazio ekitatiboa eskuratzeko duten gaitasuna mugatuko.

**15.12 Aldaketak.** 1.5(b) atalean (Aldaketak: URLen baldintzak [Datuen Tratamenduaren Gehigarria izan ezik] edo 1.5 (c) atalean (Aldaketak: Datuen Tratamenduaren Gehigarria) aurreikusitako kasuetan izan ezik, Hitzarmen honetan Indarrean Sartzen den Datuen ondoren egiten den edozein aldaketa idatziz egin beharko da, bi aldeek sinatu beharko dute eta berariaz adierazi beharko da Hitzarmen honen gehigarri bat dela. Argigarri gisa, Googlek Hitzarmen honetako edozein URL eguneratzen badu, ez da Hitzarmenaren gehigarritzat hartuko, ez eta baldintzen aldaketatzat ere.

**15.13 Indarraldia.** Atal hauek indarrean jarraituko dute Hitzarmena mugaeguneratu edo suntsiarazi ondoren: 2. atala (Ordaintzeko baldintzak), 5. atala (Jabetza Intelektualeko Eskubideak, Bezeroaren Datuen babesa, oharra eta Zerbitzuen Marka Baliabideen erabilera), 7. atala (Informazio Konfidentziala), 8.6 atala (Suntsiaraztearen edo ez berritzearen ondorioak), 11. atala (Erantzukizunari uko egitea), 12. atala (Erantzukizunak mugatzea), 13. atala (Kalte-ordaina), 14.1 atala (Aplikagarriak diren baldintzak), 14.2 atala (Informazio Konfidentziala partekatzea) eta 15. atala (Zenbait gai).



**15.14 Hitzarmenaren osotasuna.** Hitzarmen honek aldean artean adostutako baldintzak ezartzen ditu, eta xede berarekin aldean artean egindako akordio guztiak balio gabetzen eta ordeztzen ditu, Hitzarmen honen aurreko bertsioak barne. Hitzarmen hau egitean, aldeetako bat ere ez da Hitzarmen honetan berariaz ezarrita ez dauden adierazpen, ordezkari eta bermeetan (zabarkeriagatik edo errugabetasunagatik) babestu, eta ez du horien ondorioz eskubiderik edo irtenbiderik izango.

**15.15 Baldintzak gatazkan.** Hitzarmena osatzen duten dokumentuen arteko gatazkarik badago, honako hau izango da dokumentuen behearazko nagusitasun-hurrenkera:

Eskaera Inprimakia, Datuen Tratamenduaren Gehigarria, Hitzarmenaren gainerakoa (URLen Baldintzak izan ezik) eta URLen Baldintzak (Datuen Tratamenduaren Gehigarria izan ezik).

**15.16 Goiburuak.** Hitzarmenean erabiltzen diren titulu eta azpтитuluak erreferentziakoak baino ez dira eta ez dute eraginik izango Hitzarmenaren interpretazioan.

**15.17 Hizkuntzak gatazkan.** Hitzarmen hau ingelesetik beste edozein hizkuntzatarara itzultzen bada eta alderik badago ingelesezko bertsioaren eta itzulitako testuaren artean, ingelesezko bertsioak izango du lehentasuna, baldin eta itzulitako bertsioan berariaz kontrakoa adierazten ez bada.

**15.18 KEEKri uko egitea.**

(a) 15.18 atal honen (KEEKri uko egitea) ondoreetarako, "mikroenpresa", "enpresa txikia" eta "irabazi-asmorik gabeko erakundea" terminoek KEEKn ezarritako esanahi izango dute. "KEEK" Komunikazio Elektronikoen Europako Kodea da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/1972 (EB) Zuzentarauan ezarritakoa.

(b) Aldeek aitortzen dute KEEKren arabera: (i) eskubide batzuk mikroenpresetara, enpresa txikietara eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetara hedatzen direla eta (ii) (i) puntuan aipatutako kategorietakoak diren Bezeroek horietako bati uko egitea onar dezaketela berariaz.

(c) Bezero bat mikroenpresa, enpresa txikia edo irabazi-asmorik gabeko erakundea bada, onartu egiten du artikulua hauek ematen dizkieten eskubideei uko egitea:

(i) KEEKren 102(1) artikulua, Bezeroari kontratua gauzatu aurreko informazioa jasotzeko aukera ematen diona.

(ii) KEEKren 102(3) artikulua, Bezeroari akordioaren laburpena jasotzeko aukera ematen diona.

(iii) KEEKren 105(1) artikulua, zenbait zerbitzutan akordioaren gehieneko iraupena 24 hilabetera mugatzen duena.

(iv) KEEKren 107(1) artikulua, bere eskubideetako batzuk (aurretik deskribatutako 102(3) eta 105(1) artikulua barne) Google Workspace-n akordioaren arabera emandako zerbitzuetara hedatzen dituenak.

**15.19 Definizioak.**

"Kontua" Bezeroaren Google kontuaren kredentzialak eta Hitzarmen honetan zehaztutako Zerbitzuetarako sarbidea da.

"Produktu Gehigarriak" Zerbitzuetakoak ez diren baina haiekin batera erabil daitezkeen produktu, zerbitzu eta aplikazioak dira.

"Produktu Gehigarrien Baldintzak" uanean-unean indarrean dauden baldintzak dira. Hemen daude zehaztuta baldintza horiek: [https://workspace.google.com/intl/es/terms/additional\\_services.html](https://workspace.google.com/intl/es/terms/additional_services.html).

"Administratzailearen Kontua" Zerbitzuak administratzeko Bezeroak (edo hala balegokio, Birsaltzaileak) erabil dezakeen Azken Erabiltzailearen Kontua da.

"Administrazio Kotsola" Zerbitzuak administratzeko Google Bezeroaren esku jartzen dituen tresnak eta kotsolak dira.

"Administratzaileak" Bezeroak bere izenean Azken Erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuak administratzeko izendatutako langileak dira.

Langile horiek Bezeroaren Datuak eskuratu eta Azken Erabiltzailearen Kontura sar daitezke. Administratzaileak Azken Erabiltzailearen Kontuekin lotutako Azken Erabiltzaileentzako eskuragarri dauden datuak eskuratu, kontrolatu, erabili, aldatu, atxiki edo heda ditzakete.

"Publizitatea" Googlek Azken Erabiltzaileei erakusten dizkien online iragarkiak dira. Ez dira publizitatetzat hartzen Bezeroak Googlek edo haren erakunde elkartuek zerbitzuekin lotura erakustea berariaz aukeratzen dituen eta aparteko akordio batean zehazten dituen iragarkiak (adibidez, Bezeroak Zerbitzuen barruan dagoen "Google Sites" funtzioarekin sortu duen webgune batean argitaratzen dituen Google AdSense-ren iragarkiak).

"Erakunde Elkartua" kontrol zuzena edo zeharkako duen, alde batek Kontrolatzen duen edo haren Kontrolpean dagoen edozein erakunde da.

"Urteko Kargua" Zerbitzuen truke urtero ordaindu behar den eta Eskaera Inprimakian zehatuta dagoen zenbatekoa da.

"Eroskeriaren aurkako Legeak" indarrean dauden eroskeriaren aurkako lege publiko eta merkataritza-legeak dira, barne hartuta Estatu Batuetako 1977ko Jardunbide Usteleri buruzko Legea eta Erresuma Batuko 2010eko Eroskeriaren aurkako Legea; horiek debekatu egiten dute edozein pertsonari, funtzionario publikoak barne, negozioak lortzeko edo mantentzeko edo bidegabeko beste edozein merkataritza-abantaila lortzeko balio-artikuluak, zuzenean edo zeharka, eroskeria gisa eskaintzea. Funtzionario publikoek barne hartzen dituzte Administrazio publikoetako langileak, postu publikoetarako hautagaiak, errege-familietako kideak, erakunde publikoetako edo Gobernuak kontrolatutako erakundeetako enplegatuak, nazioarteko erakunde publikoak eta alderdi politikoak.

"EOP" Zerbitzuen Erabilera Onargarriaren Politika da. Hemen dago eskuragarri: [https://workspace.google.com/intl/es/terms/use\\_policy.html](https://workspace.google.com/intl/es/terms/use_policy.html).

"Enpresa Lankidetzarako Kontratua" babestutako mediku-informazioaren (HIPAA Legean definitzen denaren arabera) tratamendua arautzen duen Hitzarmenaren gehigarri bat da.

"Fakturatzen Hasteko Data" Googlek Zerbitzuagatiko Tasak (halakorik badago) aplikatzen hasten den data da.

"Marka Baliabideak" alde bakoitzaren merkataritza-izenak, merkataritza-markak, zerbitzu-markak, logotipoak, domeinu-izenak eta beste marka-baliabide bereizgarri batzuk dira, hala badagokio, titularrek babesten dituztenak.

"Informazio Konfidentziala" Hitzarmen honekin bat, alde batek (edo alde bati lotutako Erakunde Elkartu batek) beste aldeari jakinarazten dion eta konfidentziala den edo inguruabar arruntetan konfidentzialtzat hartzen den informazioa da. Ez da definizio honetan sartzen hartzaileak modu independentean garatutako informazioa, konfidentzialtasun-betebarrik ez duen hirugarren batek alderdi bati legez emandakoa, edo, hartzaileak erantzukizunik izan gabe, publiko egiten dena. Aurreko esaldiarekin bat etorritz, Bezeroaren Datuak Bezeroaren Informazio Konfidentzialtzat hartzen dira.

"Kontrola" alde baten boto-eskubideen edo partizipazioen % 50 baino gehiago kontrolatzea da.

"Zerbitzu Nagusiak" une jakin batean eskuragarri dauden eta Zerbitzuen Laburpenean deskribatzen diren Zerbitzuak dira. Zerbitzu horiek ez dituzte hartzen Hirugarrenen Eskaintzak.

"Bezeroaren Datuak" Bezeroak edo Azken Erabiltzaileek Zerbitzuen bidez aurkeztutako, biltegitratutako, igorritako edo jasotako datuak dira.

"Datuen Tratamenduaren Gehigarria" [https://workspace.google.com/terms/dpa\\_terms.html](https://workspace.google.com/terms/dpa_terms.html) webgunean une bakoitzean indarrean dauden baldintza berrienak dira. Baldintza horiek Bezeroaren Datuak babesteko eta tratatzeko betebeharrak deskribatzen dituzte.

"Domeinuko Helbide Elektronikoa" Zerbitzuekin lotuta erabiliko den Domeinu Izenaren helbide elektronikoa da.

"Domeinu Izena" Eskaera Inprimakian edo Birsaltzailearen Eskaeran zehazten den eta Zerbitzuekin lotuta erabiliko den domeinua da.

"Azken Erabiltzaileak" Bezeroak Zerbitzuak erabiltzeko baimena ematen dien eta Administrazioarekin batek ezarritakoaren arabera arautzen diren pertsonak dira. Argibide gisa, Azken Erabiltzaileen artean sar daitezke Bezeroaren Erakunde Elkartuetako enplegatuak eta hirugarrenak.

"Azken Erabiltzailearen Kontua" Zerbitzuen bidez Googlek hartutako eta Bezeroak konfiguraturatutako kontua da, Azken Erabiltzaileek Zerbitzua erabil dezaten.



"Esportazioak Kontrolatzeko Legeak" esportazioak eta berresportazioak kontrolatzeko aplikagarriak diren lege guztiak dira, honako hauek barne: (a) Estatu Batuetako Merkataritza Departamentuaren esportazioak administratzeko araudiak ("EAR"); (b) Estatu Batuetako Altxorraren Departamentuko Aktibo Atzerritarrak Kontrolatzeko Bulegoaren diru- eta merkataritza-zigorrek; eta (c) Estatu Batuetako Estatu Departamentuaren armen nazioarteko trafikoari buruzko araudia.

"Tasak" honako hauek dira: (a) Bezeroak erabili edo eskatu dituen Zerbitzuen kopurua Prezioekin (halakorik badago) biderkatzearen ondoriozko produktua, edo (b) TSSren tasak gehi aplikagarriak diren zergak.

"Laguntza Zentroa" Googleren Laguntza Zentroa da. Bertara webgune honen bidez sar daiteke: <https://www.google.com/support>.

"Arrisku Handiko Jarduerak" zerbitzuak erabiltzearen edo huts egitearen ondorioz heriotza, lesio pertsonalak edo kalte materialak edo ingurumenekoak ekar ditzaketen jarduerak dira; adibidez, instalazio nuklearren eraikuntzarekin edo kontrolarekin, aireko zirkulazioaren kontrolarekin, bizi-euskarriko sistemekin edo armekin lotutako jarduerak.

"HIPAA" Estatu Batuetako 1996ko mediku-aseguruen transferentzia eta erantzukizunari buruzko legea da (Health Insurance Portability and Accountability Act), aintzat hartuta noizbehinka izan ditzakeen gehigarriak eta haren arabera argitaratutako xedapenak.

"Barne" informazioa emateko zerrenda ez xehatu bat da. "Kalte-ordaina jasotako Erantzukizunak" honako hauek dira: (i) kalte-ordaina ordaindu behar duen aldeak onartutako likidazio-zenbatekoak; eta (ii) jurisdikzio eskuduneko auzitegi baten epaiaren arabera kalte-ordaina jaso behar duen aldeari ordaindu beharreko kalteak eta kostuak dira.

"Jabetza Intelektualeko Eskubideak" honako hauek dira: patente-eskubideak, egile-eskubideak, merkataritza-markako eskubideak, merkataritza-sekretuko eskubideak (halakorik badago), diseinu-eskubideak, datu-baseetako eskubideak, domeinu-izenen eskubideak, eskubide moralak eta mundu osoko jabetza intelektualeko bestelako eskubideak (erregistratuak edo erregistratu gabeak).

"Legezko Prozesua" informazioa hedatzeko eskaera da, lege, gobernuko araudi, agindu judicial, zitazio, berme edo legezko agintaritza, legezko prozedura edo antzeko prozesu baliagarri batek hala eskatuta.

"Erantzukizuna" Hitzarmena ez betetzeagatiko, laidoagatiko (zabarkeria barne) edo bestelako erantzukizuna da, aldeek aurreikusia izan edo ez.

"Hileko Kargua" Zerbitzuen truke hileror ordaindu behar den eta Eskaera Inprimakian zehatuta dagoen zenbatekoa da.

"Jakinarazpenetako Helbide Elektronikoa" Bezeroak Administrazio Kontsolan hautatutako helbide elektronikoa da.

"Eskaera Inprimakia" online eskatzeko orria edo orriak edo Googlek Hitzarmen honen arabera onar dezakeen bestelako eskaera-dokumentua da, Googlek emandakoa eta Bezeroak onartutakoa edo formalizatutakoa. Dokumentu horietan Hitzarmenaren arabera Bezeroak Googleri eskatzen dizkion Zerbitzuak zehazten dira.

"Eskaera Epea Zerbitzua Ematen Hasteko Datan hasi eta Eskaera Inprimakian adierazitako unean amaitzen den epea da, baldin eta ez bada Hitzarmen honen arabera baliogabetzen. Zerbitzuen Eskaera Inprimakia ematen ez bada, hasierako Eskaera Epea Indarrean Sartzen den Datan hasiko da eta 12 hilabete amaituko da.

"Zerbitzu Gehigarriak" une jakin batean eskuragarri dauden eta Zerbitzuen Laburpenean deskribatzen diren Zerbitzuak dira. Zerbitzu horiek ez dituzte hartzen Hirugarrenen Eskaintzak.

"Prezioak" unean-unean indarrean dauden eta Zerbitzuei aplikagarri zaizkien prezioak dira, baldin eta beste batzuk adosten ez badira gehigarri edo Eskaera Inprimaki batean. Prezio horiek webgune honetan daude zehaztuta: <https://workspace.google.com/intl/es/pricing.html> Prezioetan ez dira Tasak sartzen.

"Birsaltzailea" hala badagokio, aldeetako bakar bati elkartu gabeko kanpoko birsaltzailea da, Bezeroari Zerbitzuak saldu edo hornitzeko baimena duena.

2022ko apirilaren 21a, osteguna

"Birsaltzailearen Akordio", hala badagokio, Zerbitzuekin lotuta Bezeroak eta Birsaltzaileak aparte sinatzen duten akordioa da. Birsaltzailearen Akordioa independentea da eta ez da sartzen Hitzarmen honen esparruan.

"Birsaltzailearen Tasak" Birsaltzailearen Akordioan adostutakoaren arabera Bezeroak erabiltzen edo eskatzen dituen Zerbitzuei aplikagarri zaizkien tasak (halakorik badago) gehi dagozkion zergak dira.

"Birsaltzailearen Eskaera", hala badagokio, Birsaltzaileak egin eta Bezeroak formalizatutako eskaera-inprimakia da (berritzeoak barne). Bertan, Birsaltzaileak Bezeroak eskatzen dizkion Zerbitzuak zehazten ditu.

"Zerbitzuen Baldintza Espezifikokoak" Zerbitzu baten edo batzuen baldintza espezifikokoak dira, <https://workspace.google.com/intl/es/terms/service-terms> webgunean unean-unean indarrean daudenak.

"Zerbitzuak" Google Workspace for Education-en edizioak barne hartzen dituen Zerbitzu Nagusiak eta Zerbitzu Gehigarriak dira, unean-unean indarrean daudenak.

"Zerbitzuak Ematen Hasteko Data" Eskaera Inprimakian zehazten den hasierako data da, eta halakorik zehazten ez bada, Googlek Zerbitzuak Bezeroaren esku jartzen dituen data.

"Zerbitzuen Laburpena" unean-unean indarrean dagoen deskribapena da. Webgune honetan dago eskuragarri: [https://workspace.google.com/intl/es/terms/user\\_features.html](https://workspace.google.com/intl/es/terms/user_features.html).

"Zerbitzu Mailako Akordioa" <https://workspace.google.com/intl/es/terms/sla.html> webgunean unean-unean indarrean dauden Zerbitzu Mailako Akordioak dira.

"Etetea" Zerbitzuetarako edo haren osagaietako sarbidea edo haien erabilera desgaitzea da.

"Zergak" Gobernuko zerga guztiak dira, honako hauek izan ezik: diru-sarrera garbiei aplikagarriak zaizkienak, ondare garbia, aktiboen balioa, jabetzen balioa edo Google erabiltzea.

"Indarraldia" Hitzarmen honen 8. atalean (Indarraldia eta suntsiarazpena) adierazten den esanahia du.

"Hirugarrenek Abiarazitako Legezko Prozesua" aldeetako bati ere elkartuta ez dagoen erakunde batek gobernuaren auzitegi baten aurrean abiarazitako edozein legezko prozedura formala edo bestelako prozedura da (apelazio-prozedurak barne).

"Hirugarrenen Eskaintzak" Zerbitzuetan sartuta ez dauden hirugarrenen zerbitzuak, softwarea, produktuak eta bestelako eskaintzak dira.

"Marka Erregistratuen Gidalerroak" Hirugarrenek Googleren Marka Baliabideak Erabiltzea arautzen duten eta indarrean dauden Googleren Gidalerroak dira. Hemen zehazten dira: <http://www.google.com/permissions/guidelines.html>.

"TSS" unean-unean eskuragarri dagoen Googleren laguntza teknikoko zerbitzua da.

"TSSren Gidalerroak" unean-unean indarrean dauden Googleren laguntza teknikoko zerbitzuak arautzen dituzten gidalerroak dira. Hemen zehazten dira: <https://workspace.google.com/intl/es/terms/tssg.html>.

"URLen Baldintzak" EOP, Datuen Tratamenduaren Gehigarria, Zerbitzuen Baldintza Espezifikokoak, Zerbitzu Mailako Akordioa eta TSSren Gidalerroak dira.

## 2. ERANSKINA

### DATUEN TRATAMENDUAREN GEHIGARRIA\*

*\* Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau Hitzarmena Indarrean Sartzen den Datu indarrean dagoen bertsioaren itzulpenaren erreferentzia gisa baino ez da sartzen, baina aldeek aitortu eta onartzen dute unean-unean indarrean dagoen Datuen Tratamenduaren Gehigarriaren bertsio berriena nagusituko dela.*

Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau, eranskinak barne (aurrerantzean "**Datuen Tratamenduaren Gehigarria**"), Hitzarmenean eta Produktu Gehigarriaren Kontratuetan (jarraian definitzen dira) atxikitzen dira, eta horien arabera, Googlek erabaki du dagozkion Zerbitzuak (jarraian definitzen dira) eta Bezeroarekin lotutako euskarri teknikoa ematea (bakoitza "**Kontratu**" batean).

#### 1. **Hasiera**

Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau indarrean sartuko da eta Zerbitzuei aplikagarri zitzaizkien datuen tratamenduaren, segurtasunaren edo pribatutasunaren tratamenduaren edozein baldintza baliogabetuko du Gehigarria Indarrean Sartzen den Datatik aurrera (jarraian definitzen da).

#### 2. **Definizioak**

1. Kontratuan definitzen diren eta hizki larriz idatzita dauden terminoak Datuen Tratamenduaren Gehigarri honi aplikatzen zaizkio. Horrez gain, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan:

- **Produktu Gehigarriak** Zerbitzukoak ez diren baina Administrazio Kontsolaren bidez edo beste modu batera eskura daitezkeen eta Zerbitzuekin batera erabiltzekoak diren produktuak, zerbitzuak eta aplikazioak dira.
- **Segurtasun-kontrol gehigarriak** Bezeroak aukeran edo zehazten duen bezala erabil ditzakeen segurtasun-baliabideak, -ezaugarriak, -funtzioak edo -kontrolak dira, barne hartuta Administrazioaren Kontsola, zifratua, erregistroa eta berrikuspena, nortasunaren eta sarbidearen kudeaketa, segurtasun-eskaneaketa eta suebakiak.
- Honako hauek dira **herrialde egokiak**:
  - o EBren DBEOren arabera tratatutako datuei dagokienez: EEE edo EBren DBEOren 45.1 artikuluari jarraikiz Batzordearen egokitzapen-erabaki baten xede den herrialde edo lurraldea.
  - o Erresuma Batuko DBEOren arabera tratatutako datuei dagokienez: Erresuma Batua edo Erresuma Batuko DBEOren 45.1 artikuluari eta 2018ko Datuak Babesteko legearen 17A artikuluari jarraikiz egokitzapen-araudi baten xede den herrialde edo lurraldea; edo
  - o Suitzako FDParen arabera tratatutako datuei dagokienez: Suitza edo (i) Datuak eta Informazioa Babesteko Suitzako Komisario Federalak argitaratutakoaren arabera babes-maila egokia bermatzen duen legeria duten Estatuen zerrendan sartuta dagoen herrialde edo lurraldea, edo (ii) Suitzako FPDari jarraikiz Suitzako Kontseilu Federalaren egokitzapen-erabaki baten xede den herrialde edo lurraldea.
- **Publizitatea** Googlek Azken Erabiltzaileei erakusten dizkien online iragarkiak dira. Ez dira publizitatetzat hartzen Bezeroak Googlek edo haren filialek zerbitzuekin lotura erakustea berariaz aukeratzen dituen eta kontratu independente batean zehazten dituen iragarkiak (adibidez, Bezeroak Zerbitzuen barruan Google Sites-en edozein funtzioarekin sortu duen webgune batean argitaratzen dituen Google AdSense-ren iragarkiak).

2022ko apirilaren 21a, osteguna

- **Transferentzia-irtenbide alternatiboa** ereduako Kontratu-klausulak ez bezalako irtenbidea da, datu pertsonalen bidez datu pertsonalak hirugarren herrialde batera transferitzea ahalbidetzen duena, bat etorriaz Datuak Babesteko Europako Legearekin.
- **Gehigarria Indarrean Sartzeko Data** Bezeroak Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau onartu edo aldeek beste modu batean adostu zuten data da.
- **Ikuskatutako zerbitzuak** honako hauek dira:
  - Google Workspace-ren Zerbitzu nagusiak, dagokion ziurtagiriaren edo txostenaren irismenean (hemen eskuragarria: <https://cloud.google.com/security/compliance/services-in-scope/>) sartuta daudenak, aintzat hartuta Googlek ezin izango duela URL horren Google Workspace-ren Zerbitzu nagusirik ezabatu, baldin eta Zerbitzu hori aplikagarria den Kontratuari jarraikiz eten ez bada; ez eta
  - gainerako Zerbitzuak ere, ez bada kontrakoa adierazten Google Workspace-ren Zerbitzuen Laburpenean edo produktu osagarrien zerbitzuen Laburpenean, edo aldeek ez badute kontrakoa berariaz adosten idatziz.
- **Produktu osagarria** Hodeiko Nortasuna edo Produktu Osagarrien Kontratu bati jarraikiz emandako beste edozein zerbitzu da.
- **Produktu Osagarriaren Kontratua** Hodeiko Nortasunaren Kontratua da edo Googlek bezeroari nortasun-zerbitzuak emateko konpromisoa hartzeko beste akordioaren bat; edo erreferentzia gisa Datuen Tratamenduaren Gehigarria hau jasotzen duen edo Bezeroak onartzen badu aplikatuko dela ezartzen duen beste akordio bat. Akordio horiek aldatu ahal izango dira, hala dagokionean.
- **Produktu osagarrien zerbitzuen laburpena** Produktu Osagarriaren Kontratu bati jarraikiz emandako zerbitzuen uanean indarrean dagoen deskribapena da, dagokion Kontratuan ezarritakoaren arabera.
- **Bezeroaren Datuak** Bezeroek edo Azken Erabiltzaileek Zerbitzuen bidez emandako, bildutako, igorritako edo jasotako datuak dira.
- **Bezeroaren datu pertsonalak** Bezeroaren Datuetan sartutako datu pertsonalak dira, besteak beste Datuak Babesteko Europako Legean definitutako datu pertsonalen kategoria bereziak.
- **Bezeroaren ereduako Kontratu-klausulak** honako hauek dira: Tratamenduaren arduradun izatetik EBko Tratamendu-eragile izatera pasatzeko ereduako Kontratu-klausulak; Tratamenduaren arduradun izatetik EBko Tratamenduaren arduradun izatera pasatzeko ereduako Kontratu-klausulak; Tratamenduaren arduradun izatetik EBko Tratamendu-eragile izatera pasatzeko ereduako Kontratu-klausulak; eta Tratamenduaren arduradun izatetik Erresuma Batuko Tratamendu-eragile izatera pasatzeko ereduako Kontratu-klausulak.
- **Datuen gorabehera** Googleren segurtasunaren edozein urraketa da, baldin eta bezeroaren Datu pertsonalak suntsitu, galdu, aldatu edo baimenik gabe hedatzen badira, edo datu horiek ustekabean edo legez kanpo eskuratzen badira Googlek beste modu batean administratu edo kontrolatutako sistemetan.
- **EEE** Europako Esparru Ekonomikoa da.
- **EMEA eskualdea** Europak, Ekialde Hurbilak eta Afrikak osatzen dute.
- **EBko DBEO** honako hau da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- **Datuak Babesteko Europako Legea** (a) DBEO edo (b) Suitzako FDPA da, dagokionaren arabera.
- **Europako Legea**, dagokionaren arabera, honako hau da: (a) EBko edo EBko Estatu Kide baten Legea (baldin eta EBko DBEO Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen bazaio); eta (b) Erresuma Batuko edo Erresuma Batuaren zati bateko Legea (baldin eta Erresuma Batuko DBEO Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen bazaio).

- **Erabat aktibatze data** honako hau da: (a) Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau aplikagarria den Kontratura gehitzen bada zuzenean, Gehigarria Indarrean Sartzen den Data; edo (b) Bezeroak Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau onartu edo aldeek beste modu batera adostu bazuten, Gehigarria Indarrean Sartu eta zortzigarren eguna.
- **DBEO**, dagokionaren arabera, honako hau da: (a) EBko DBEO; eta/edo (b) Erresuma Batuko DBEO.
- **Googleren kanpoko auditorea** auditore independentea da, Googlek izendatu duena eta kualifikatua. Haren indarreko nortasuna Googlek Bezeroari jakinaraziko dio.
- **Googleren kontratua** honako hauek dira: (a) Google Workspace-ren Kontratu bat; Google Workspace for Education-en Kontratu bat (Hitzarmena barne); Google Cloud-en esparru-kontratua Google Workspace-ren zerbitzuen Programarekin; edo Googlek Bezeroari Google Workspace-ren zerbitzuen Laburpenean deskribatutako edozein zerbitzu ematea onartzen duen beste edozein kontratu (horietako bakoitzaren aldizkako aldaketak aintzat hartuta).
- **Googleren zerbitzuen laburpena** honako hau da: Google Workspace-ren zerbitzuen indarreko deskribapena (aipatutako edizioak barne) hemen ezartzen den bezala: [https://workspace.google.com/terms/user\\_features.html](https://workspace.google.com/terms/user_features.html)(Googlek eguneratu egin dezake Google Workspace-ren kontratuari jarraikiz).
- **Jarraibideak** 5.2.1 atalean (Bezeroaren jarraibideak) ematen zaien esanahi bera dute.
- **Datuak Babesteko Europakoa ez den Legea** indarrean dauden eta EEEtik Suitzatik eta Erresuma Batutik kanpokoak diren datuak edo pribatutasuna babesteko legeak dira.
- **Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa** Bezeroak Administrazio Kontsolan hautatu duen helbide elektronikoa edo Googleren jakinarazpen batzuk jasotzeko eskaera-dokumentua da. Bezeroa da jakinarazpenetarako helbide elektronikoa eguneratu eta baliagarria izateko Administrazio Kontsola erabiltzeko arduraduna. **Ereduzko Kontratu-klausulak** Bezeroaren ereduzko Kontratu-klausulak edo ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamenduaren arduradun izatetik EBko Tratamenduaren arduradun, Googleren esportatzaile izatera pasatzeko) dira, dagokionaren arabera.
- **Ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamenduaren arduradun izatetik EBko tratamendu-eragile izatera pasatzeko)** hemen eskuragarri dauden baldintzak dira: <https://cloud.google.com/terms/scs/eu-c2p>
- **Ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamendu-eragile izatetik EBko Tratamenduaren arduradun izatera pasatzeko)** hemen eskuragarri dauden baldintzak dira: <https://cloud.google.com/terms/scs/eu-p2c>
- **Ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamendu-eragile izatetik EBko Tratamendu-eragile izatera pasatzeko)** hemen eskuragarri dauden baldintzak dira: <https://cloud.google.com/terms/scs/eu-p2p>
- **Ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamendu-eragile izatetik EBko Tratamendu-eragile, Googleren esportatzaile izatera pasatzeko)** hemen eskuragarri dauden baldintzak dira: <https://cloud.google.com/terms/scs/eu-p2p-googleexporter>
- **Ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamendu-eragile izatetik EBko Tratamenduaren arduradun izatera pasatzeko)** hemen eskuragarri dauden baldintzak dira: <https://cloud.google.com/terms/scs/uk-c2p>
- **Segurtasun-dokumentazioa** 7.5.1 atalari (Segurtasun-dokumentazioaren berrikuspenak) jarraikiz Googlek eskuragarri jarritako informazioa eta dokumentu guztiak dira.
- **Segurtasun-neurriak** 7.1.1 atalean (Googleren segurtasun-neurriak) ematen zaien esanahi bera dute.

- **Zerbitzuaren baldintza espezifikoak** Google Workspace-ren Kontratuan edo produktu osagarriaren Kontratuan, dagokionaren arabera, ematen zaien esanahi bera dute; edo Bezeroaren Google Workspace-ren Kontratuan ez badira definitzen "Zerbitzuaren baldintza espezifikoak", hemen ezarritako Zerbitzu bateko edo gehiagoko indarreko baldintza espezifikoak dira: <https://workspace.google.com/terms/service-terms/>.
- **Zerbitzuak** honako zerbitzu hauek dira, dagokionaren arabera:
  - Google Workspace-rako Zerbitzu nagusiak eta beste Zerbitzu batzuk, Google Workspace-ren Zerbitzuen Laburpenean deskribatzen den bezala; edo produktu osagarrien Zerbitzuen Laburpenean deskribatutako zerbitzuak.
- **Datuen tratamendu-azpigeragilea** Datuen Tratamenduaren Gehigarri honi jarraikiz, datuen tratamenduaren arduradun gisa baimendutako hirugarren pertsona da, Zerbitzuetako batzuk eta SST emateko sarbide logikoa izan dezan eta datuak trata ditzan.
- **Kontrol-agintaritza** dagokionaren arabera honako hau da: a) EBko DBEOn definitzen den "kontrol-agintaritza"; edo/eta b) Erresuma Batuko DBEOn edo Suitzako FDPAn definitutako "Komisarioa".
- **Suitzako FDPA** Suitzako 1992ko ekainaren 19ko Datuak Babesteko Lege Federala da.
- **Indarraldia** Gehigarria indarrean sartzen den Datatik Googlek Zerbitzuak emateari uzten dion datara bitarteko epea da, bai eta, hala badagokio,

Zerbitzuen emakida eten daitekeen edozein epe eta xede iragankorrez Googlek kontratua amaitu ondoren Zerbitzuak ematen jarrai dezakeen edozein epe ere.

- **Erresuma Batuko DBEO** Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko Legearen (2018) eta lege horren arabera ezarritako bigarren mailako legeria aplikagarriaren arabera aldatu eta Erresuma Batuko legerian txertatu den EBko DBEO da.

2. Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan erabiltzen diren "datu pertsonalak", "interesduna", "tratamendua", "tratamenduaren arduraduna" eta "tratamendu-eragilea" terminoek DBEOan ematen zaien esanahi bera dute, Datuak Babesteko Europako Legea edo Datuak Babestekoa Europakoa ez den Legea aplikatzen den gorabehera.

### 3. **Iraupena**

Kontratuaren suntsiarazpena edo epemuga gorabehera, Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau indarrean egongo da Googlek Bezeroaren Datu guztiak ezabatu arte, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan deskribatzen den bezala, eta datuak ezabatzen direnean automatikoki galduko du indarraldia.

### 4. **Datuak Babesteko Legearen aplikazio-eremua**

1. **Europako Legearen aplikazioa.** Aldeek aitortzen dute Datuak Babesteko Europako Legea aplikatuko zaiola Bezeroen Datu pertsonalen tratamenduari, baldin eta, adibidez:

- a. tratamendua Bezeroaren EEko edo Erresuma Batuko establezimendu bateko jardueren testuinguruan egiten bada; eta/edo
- b. Bezeroaren datu pertsonalak EEEn edo Erresuma Batuan dauden interesdunen datu pertsonalak badira eta tratamendua ondasunen edo zerbitzuen eskaintzekin edo EEEn edo Erresuma Batuan duten jokabidearen berrikuspenarekin lotzen bada.

2. **Europakoa ez den Legearen aplikazioa.** Aldeek aitortzen dute Datuak Babesteko Europakoa ez den Legea ere aplika dakiokela Bezeroen Datu pertsonalen tratamenduari.

3. **Baldintzak aplikatzea.** Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan kontrakoa adierazi ezean, Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari Datuak Babesteko Europako Legea edo Datuak Babesteko Europakoa ez den Legea aplikatzen den aintzat hartu gabe aplikatuko da.

### 5. **Datuen tratamendua**

#### 1. **Funtzioak eta araudia betetzea; baimena.**

1. **Tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen erantzukizunak.** Datuak Babesteko Europako Legea Bezeroen Datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen bazaio:

- a. 1. eranskinak Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduaren xedea eta xehetasunak deskribatzen ditu;
- b. Google da Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Datuak Babesteko Europako Legearekin bat etorritik;
- c. Bezeroa Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduaren arduradun bat edo tratamendu-eragilea bat da, dagokionaren arabera, Datuak Babesteko Europako Legearekin bat etorritik; eta
- d. alde bakoitzak Datuak Babesteko Europako Legearen arabera dagokion betebeharrak beteko ditu, Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

2. **Bezero tratamendu-eragileak.** Datuak Babesteko Europako Legea Bezeroen Datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen bazaio eta Bezeroa Tratamendu-eragilea bada:

- a. Bezeroak etengabe bermatuko du dagokion Tratamenduaren arduradunak honako hauek baimendu dituela: (i) Jarraibideak, (ii) Googleren Bezeroak beste eragile bat bezala izendatzea, eta (iii) Googlek azpieroagileak kontratatzea, 11. atalean (Azpieroagileak) deskribatzen den bezala.
- b. Bezeroak berehala igorriko dio dagokion Tratamenduaren arduradunari Googlek igorritako edozein jakinarazpen, honako atal hauei jarraikiz: 5.2.3 (Jarraibideei buruzko jakinarazpenak),







(Ezabatze atzeratuari buruzko jarraibidea) arabera, Bezeroak Googleri Bezeroaren gainerako Datu guztiak (dauden kopiak barne) Googleren sistemetatik ezabatzeko jarraibidea emango dio Indarraldia amaitzen denean, aplikagarria den legeriarekin bat. Gehienez ere 30 eguneko berreskuratze-eparean ondorioz, Googlek Jarraibide hori beteko du ahal bezain laster eta gehienez ere 180 eguneko epean, betiere Europako Legeak ez badu eskatzen horiek biltegiratu egin behar direla.

3. **Ezabatze atzeratuari buruzko Jarraibidea.** Epe jarraituko Kontratu bati dagokionez, 6.2 atalaren arabera aplikagarria den Epea amaitzen denean, 6.2 atalean (Indarraldiaren amaieran ezabatzea) deskribatutako ezabatze-jarraibideetan jasotako Bezeroaren Datuak izapidetu egiten diren neurrian, ezabatzeko Jarraibide horrek epe jarraitua amaitzen denean baino ez du izango eragina, Bezeroaren Datu horiei dagokienez. Argiago azaltzeko, Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau bezeroaren datuei aplikagarria izaten jarraituko du Googlek ezabatzen ez dituen bitartean.

## 7. **Datuen segurtasuna**

### 1. **Googleren segurtasun-neurriak, kontrolak eta laguntza.**

1. **Googleren segurtasun-neurriak.** Googlek neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezarri eta mantenduko ditu Bezeroaren Datuak babesteko, baimendu gabe eta nahi gabe edo bidegabeki suntsitu, galdu, aldatu, hedatu edo eskuratu badira, 2. eranskinen ("**Segurtasun-neurriak**") deskribatzen den bezala. Segurtasun-neurriek xede honetarako neurri hauek hartzen dituzte: datu pertsonalak zifratzeko; Googleren sistema eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta egungo berreskuratze-gaitasuna bermatzen laguntzeko; gorabehera baten ondoren datu pertsonaletarako dagokion sarrera berrezartzen laguntzeko; eta eraginkortasuna aldi behin frogatzeko. Googlek aldi-aldi egunera ditzake segurtasun-neurriak, betiere eguneratze horiek Zerbitzuen segurtasun orokorra nabarmenki murrizten ez badute.

2. **Sarbidea eta adostasuna.** Googlek (a) baimena emango die bere enplegatuei, kontratistei eta datuen tratamendu-azpieroari Bezeroaren Datu Pertsonalak eskuratzeko baldin eta Jarraibideak betetzeko baino ez bada; (b) neurri egokiak hartuko ditu enplegatuek, kontratistek eta datuen tratamendu-azpieroariek segurtasun-neurriak betetzen dituztela bermatzeko, betiere bere jarduera-eremuaren barruan; eta (c) Bezeroaren Datu Pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsona guztiak konfidentzialtasun-betebeharra dutela bermatuko du.

3. **Segurtasun-kontrol gehigarriak.** Googlek Segurtasun-kontrol gehigarriak jarriko ditu erabiltzaileen esku honako xede hauetarako: (a) Bezeroak bezeroaren Datuak aseguratzekeo neurri egokiak hartzea baimentzeko; eta (b) Bezeroari bezeroaren Datuen segurtasun, sarbide eta erabilerari buruzko informazioa emateko.

4. **Googleren segurtasun-laguntza.** Googlek (aintzat hartuta Bezeroaren Datu Pertsonalen tratamenduaren izaera eta Googlek duen informazioa) lagundu egingo dio Bezeroari bere betekizunak (edo Bezeroa tratamendu-eragile bada, dagokion tratamendu-eragilearen betekizunak) betetzen dituela bermatzen, DBEOren 32. artikulutik 34.era bitarteko artikuluekin bat, honako hauen bidez:

- a. 7.1.1 atalarekin (Googleren segurtasun-neurriak) bat, segurtasun-neurriak ezarri eta mantenduz;
- b. Bezeroaren esku Segurtasun-kontrol gehigarriak jarri, 7.1.3 atalarekin (Segurtasun-kontrol gehigarriak) bat;
- c. 7.2 ataleko (Datuen gorabeherak) baldintzak betez;
- d. 7.5.1 atalarekin (Segurtasun-dokumentazioaren berrikuspenak) bat, Bezeroari Segurtasun-dokumentazioa eta Kontratuko informazioa emanez (Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau barne), eta
- e. aurreko (a)tik (d)ra bitarteko azpiatalak ez badira nahikoak Bezeroak (edo dagokion tratamendu-eragileak) betebeharrak horiek betetzeko, Bezeroak hala eskatuta, Bezeroari zentzuzko laguntza eta elkarlan gehigarria emanez.

## 2. Datuen gorabeherak.

1. Gorabehereri buruzko jakinarazpenak. Googlek datuen gorabeheraren baten berri izaten duenean, ahalik eta lasterren eta bidegabeko azterpenik gabe jakinaraziko dio Bezeroari eta zentzuzko neurriak hartuko ditu azkar kaltea minimizatzeko eta bezeroaren Datu pertsonalak babesteko.

2. Datuen gorabehera bati buruzko datuak Datuen gorabehera bati buruzko Googleren jakinarazpenak honako datu hauek jasoko ditu: datuen Gorabeheraren izaera, kaltetutako Bezeroaren errekurtsoak barne; Googlek Gorabeherari aurre egin eta haren arriskua (halakorik balego) minimizatzeko hartu edo hartuko dituen neurriak, Googlek Bezeroari datuen Gorabeherari aurre egiteko gomendatzen dizkionak; eta informazio gehiago lortzeko harremanetarako puntu bati buruzko informazioa. Datu horiek guztiak ezin badira aldi berean eman, Googleren hasierako jakinarazpenak eskuragarri dagoen informazioa jasoko du eta informazio gehiago eskuragarri dagoen heinean jakinaraziko da bidegabeko atzerapenik gabe.

3. Jakinarazpenak entregatzea. Datuen edozein Gorabeherari buruzko jakinarazpena(k) Jakinarazpenetarako helbide elektronikoaren bidez entregatuko d(ir)a.

4. Googlek Bezeroaren Datuei buruzko ebaluazioa ez egitea. Googlek ez du Bezeroaren Datuak ebaluatzeko betebeharrak legezko betekizun jakin bati lotutako informazioa identifikatzeko.

5. Googlek errua ez aitortzea. 7.2 atal honen (Datuen gorabeherak) arabera, Googlek datuen Gorabehera baten aurrean egiten duen jakinarazpena edo ematen duen erantzuna ez da hartuko, datuen Gorabeherari dagokionez, Googleren erruaren edo erantzukizunaren aitortzatzat.

## 3. Bezeroaren segurtasun-erantzukizunak eta ebaluazioa.

1. Bezeroaren segurtasun-erantzukizunak. Googleren betebeharrak alde batera utzi gabe, 7.1 (Googleren segurtasun-neurriak, kontrolak eta laguntza) eta 7.2 (Datuen gorabeherak) atalen arabera eta Kontratuaren edozein lekutan, Bezeroa da Zerbitzuen erabileraren arduradun, bai eta Bezeroaren Datuen kopia Googleren edo Googleren tratamenduaren-azpigeragileen sistemetatik kanpo biltegitratzearen arduradun ere. Horrek honako hau hartzen du barruan

- a. Zerbitzuak eta segurtasun-kontrol Gehigarriak erabiltzea Bezeroaren Datuei dagokienez arriskuarekiko egokia den segurtasun-maila bermatzeko;
- b. Zerbitzuetara sartzeko Bezeroak erabiltzen dituen Kontua egiaztatzeke kredentzialak, sistemak eta gailuak babestea; eta
- c. Bezeroaren Datuen kopia gordetzea, dagokionaren arabera.

2. Bezeroaren segurtasun-ebaluazioa. Bezeroak onartu egiten du Zerbitzuek, Googlek ezarri eta mantendutako Segurtasun-neurriek, Segurtasun-kontrol gehigarriek eta Googleren konpromisoek, 7. atalean (Datuen segurtasuna) ezartzen den bezala, arriskuarekiko egokia den segurtasun-maila ematen dutela Bezeroaren Datuei dagokienez (aintzat hartuta teknikaren egoera, ezarpenaren kostuak eta Bezeroaren Datu pertsonalen izaera, irismena, testuingurua eta tratamenduaren xedeak, bai eta pertsona fisikorentzako arriskuak ere).

## 4. Betetzeari buruzko ziurtagiriak eta SOC Txostenak. Googlek gutxienez honako hauek mantenduko ditu ikuskatutako Zerbitzuetan, Segurtasun-neurrien eraginkortasun jarraitua ebaluatzeko:

- a. ISO 27001, ISO 27017 eta ISO 27018 ziurtagiriak ("Betetzeari buruzko ziurtagiriak"); eta
- b. Googleren auditore independenteak egindako eta gutxienez 12 hilabete behin egindako auditoretza baten arabera urtero eguneratutako SOC 2 eta SOC 3

Txostenak ("**SOC Txostenak**"). Googlek edozein unetan gehi ditzake estandarrak. Googlek egiaztatzeari buruzko Ziurtagiri bat edo SOC Txosten bat ordezkari dezake baliokidea den edo hobetutako alternatiba baten bidez.

**5. Araudia betetzeari buruzko berrikuspenak eta auditoretzak.**

1. Segurtasun-dokumentazioa berrikustea. Googlek Bezeroaren eskura jarriko ditu Betetzeari buruzko Ziurtagiriak eta SOC Txostenak, berrikus ditzan, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honen arabera, Googlek bere betebeharrak betetzen dituela adierazteko.

2. Bezeroaren auditoretza-eskubideak.

a. Datuak Babesteko Europako Legea Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen bazaio, Googlek baimendu egingo du Bezeroak edo Bezeroak izendatutako kanpoko auditoreak auditoretzak egitea (ikusketak barne) egiaztatzeke Googlek Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan, 7.5.3 atalaren (Berrikuspen eta auditoretzetarako merkataritza-baldintza gehigarriak) arabera, hartutako konpromisoak betetzen dituela. Auditoretza batean, Googlek eskuragarri jarriko du betekizunak betetzen dituela egiaztatzeke beharrezkoa den informazio guztia eta lagundu egingo du auditoretzan 7.4 atalean (Adostasun-ziurtagiriak eta SOC txostenak) eta 7.5 atal honetan (Araudia betetzeari buruzko berrikuspenak eta auditoretzak) deskribatzen den moduan.

b. Bezeroaren ereduak Kontratu-klausulak 10.3 atalean (Transferentzia mugatuak) deskribatzen denaren arabera aplikatzen badira, Googlek baimena emango dio Bezeroari (Bezeroak izendatutako kanpoko auditore bati) auditoretzak egiteko ereduak Kontratu-klausula hauetan deskribatzen den bezala, eta auditoretzan eskuragarri jarriko du ereduak Kontratu-klausula hauek eskatzen duten informazio guztia; bi ekintzok 7.5.3 atalarekin (Berrikuspen eta auditoretzetarako merkataritza-baldintza gehigarriak) bat etorriko gauzatuko ditu.

c. Bezeroak auditoretza bat egin ahalko du Googlek Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan hartutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeke, eta, horretarako, Googleren auditore independenteak egindako auditoretzen emaitza jasotzen duen Segurtasun-dokumentazioa berrikusi ahalko du.

3. Berrikuspen eta auditoretzetarako merkataritza-baldintza gehigarriak.

a. Bezeroak SOC txostenak (5.1.2 atalaren (c)(i) letraren edo 7.5.1 atalaren arabera) edo auditoretzak (7.5.2 atalaren (a) letraren edo 7.5.2 atalaren (b) letraren arabera) berrikusteko eskaera igorri behar dio Googleren Hodeian Datuak Babesteko Taldeari, 12. atalean (Hodeian Datuak Babesteko Taldea; Tratamenduaren Erregistroak) deskribatzen den bezala.

b. Googlek 7.5.3 atalaren (a) letraren arabera egindako eskaera bat jasotzen badu, Googlek eta Bezeroak alde aurretik honako hauek adostuko dituzte: (1) zentzuzko data(k) eta SOC 2 txostenaren edozein berrikuspeni aplikatu dakizkiokeen segurtasun- eta konfidentzialtasun-kontrolak, 5.1.2 atalaren (c)(i) letraren edo 7.5.1 atalaren arabera; eta (ii) edozein auditoretzari aplikatu dakizkiokeen segurtasun- eta konfidentzialtasun-kontrolen arrazoizko hasiera-data, irismena eta iraupena, 7.5.2 atalaren (a) letraren edo 7.5.2 atalaren (b) letraren arabera.

c. Googlek zenbateko bat kobra dezake (Googleren zentzuko kostuak oinarri hartuta) edozein auditoretza egiteagatik, 7.5.2 atalaren (a) letraren edo 7.5.2 atalaren (b) letraren arabera. Googlek Bezeroari aplikagarria den zenbatekoaren xehetasun gehiago emango dizkio, bai eta kalkularen oinarriaren berri ere, auditoretza egin aurretik. Bezeroa izango da auditoretza hori egiteko izendatzen duen hirugarren auditoreak kobratzen dituen ordainsarien arduraduna.

d. Googlek aurka egin diezaike Bezeroak edozein auditoretza egiteko izendatutako hirugarren auditoreari, 7.5.2 atalaren (a) letraren edo 7.5.2 atalaren (b) letraren arabera, baldin eta, Googleren zentzuzko iritzia arabera, auditoreak ez badu kualifikazio nahikorik edo ez bada independentea, Googleren lehiakide bada,

edo, argi eta garbi, ez bada egokia. Googlek halako eragozpenik jartzen badu, Bezeroak beste auditore bat izendatu beharko du.

#### 8. Eraginari buruzko ebaluazioak eta kontsultak

Googlek (aintzat hartuta Bezeroaren Datu Pertsonalen tratamenduaren izaera eta Googlek duen informazioa) lagundu egingo dio Bezeroari bere betekizunak (edo Bezeroa tratamendu-eragile bada, dagokion tratamendu-eragilearen betekizunak) betetzen dituela bermatzen, DBEOren 35. eta 36. artikuluekin bat, honako hauen bidez:

- a. Segurtasun-kontrol gehigarriak emanez 7.1.3 atalarekin (Segurtasun-kontrol gehigarriak) eta 7.5.1 arabera (Segurtasun-dokumentazioaren berrikuspenak) Segurtasun-dokumentazioarekin bat etorriz;
- b. Kontratuan dagoen informazioa emanez (Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau barne); eta
- c. aurreko (a) eta (b) azpiatalak ez badira nahikoak Bezeroak (edo dagokion tratamendu-eragileak) betebeharrak horiek betetzeko, Bezeroak hala eskatuta, Bezeroari zentzuzko laguntza eta elkarlan gehigarria emanez.

#### 9. Sarbidea, etab.; Interesdunaren eskubideak; datuen esportazioa

1. Sarbidea; Zuzenketa; Tratamendu mugatua; Eramangarritasuna. Indarraldian, Googlek baimena emango dio Bezeroari, Zerbitzuen funtzionamenduari bat datorren moduan, Bezeroaren Datuetara sarbidea izateko, zuzentzeko, eta tratamendua mugatzeko, bai eta Googlek ematen duen ezabatze funtzioaren bidez Bezeroaren Datuak esportatzeko ere, 6.1 atalean (Bezeroak ezabatzea) deskribatutakoaren arabera. Bezeroak baldin badaki Bezeroaren Datu Pertsonalak ez direla zehatzak edo zaharkituta daudela, Bezeroa izango da datu horiek zuzendu edo ezabatzeko funtzio hori erabiltzearen arduraduna, baldin eta aplikagarria den Datuak Babesteko Europako Legeak hala agintzen badu.

#### 2. Interesdunaren eskaerak.

1. Eskaerengatiko erantzukizunak. Indarraldian, Googleren Hodeian Datuak Babesteko Taldeak interesdun batek Bezeroaren Datu pertsonalei buruz egindako eskaera bat jasotzen badu, eta Bezeroa identifikatzen badu. Googlek: (a) interesdunari aholkatuko dio eskera Bezeroari igortzeko; (b) Bezeroari jakinaraziko berehalak; eta (c) ez dio interesdunaren eskaerari bestelako erantzunik emango Bezeroaren baimenik gabe. Bezeroak erantzun beharko dio eskaera horri, eta, beharrezkoa denean, Zerbitzuen funtzionalitatea erabili beharko du.

2. Googleren laguntza interesdunaren eskaerei dagokienez. Googlek (aintzat hartuta Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduaren izaera) laguntza emango dio Bezeroari bere betekizunak (edo Bezeroa Tratamendu-eragile bada, Tratamendu-eragileari dagozkion betebeharrak) bete ditzan interesdunak eskubideak baliatzeko egindako eskaerei erantzuteko, DBEOren II. kapituluaren arabera, eta horretarako:

- a. Segurtasun-kontrol gehigarriak emango ditu, 7.1.3 atalarekin (Segurtasun-kontrol gehigarriak) bat etorriz;
- b. 9.1 (Sarbidea; Zuzenketa; Tratamendu mugatua; Eramangarritasuna) eta 9.2.1 (Eskaerengatiko erantzukizunak) atalak beteko ditu; eta
- c. aurreko (a) eta (b) azpiatalak ez badira nahikoak Bezeroak (edo dagokion tratamendu-eragileak) betebeharrak horiek betetzeko, Bezeroak hala eskatuta, Bezeroari zentzuzko laguntza eta elkarlan gehigarria emango dio.

#### 10. Datu-transferentzia:

10.1 **Datuak biltegiratzea eta tratamendu-instalazioak.** Zerbitzuaren baldintza espezifikoien eta 10. atal honetako (Datu-transferentzia) gainerako zatiekin bat, Googlek datuak kokatzeko hartutako konpromisoen arabera,

Bezeroaren Datuak Googlek edo bere tratamendu-eragileek instalazioak dituzten herrialdeetan tratatu ahalko dira.

2. **Transferentzia baimenduak.** Aldeek aitortzen dute Datuak Babesteko Europako Legeak ez duela eskatzen ereduzko Kontratu-klausularik edo Transferentzia-irtenbide alternatiborik Bezeroaren Datu pertsonalak Herrialde egoki batean trata daitezzen edo haietara transferi daitezzen ("Transferentzia baimenduak").

3. **Transferentzia mugatuak.** Bezeroaren Datu pertsonalak tratatzeko Transferentzia baimenduak ez diren bestelako transferentziak egin behar badira, eta Datuak Babesteko Europako Legea transferentzia horiei aplikatzen bazaie, (Bezeroaren ziurtagiriaren arabera, 10.4 atalarekin [EMEA eskualdetik kanpoko Bezeroen Ziurtapena] bat, fakturazio-helbidea EMEA eskualdetik kanpo badago), orduan:

a. Googlek iragartzen badu edozein Transferentzia mugatu egiteko Transferentzia-irtenbide alternatibo bat hartu duela, ziurtatu egingo du Transferentzia-irtenbide alternatibo horren arabera gauzatuko dela; edo

b. Googlek ez badu Transferentzia-irtenbide alternatiborik hartu Transferentzia mugatu batentzat, orduan:

i. Googleren helbidea Herrialde egoki batean badago:

A. ereduzko Kontratu-klausulak (Tratamendu-eragile izatetik EBko Tratamendu-eragile, EBko esportatzaile izatera pasatzeko) Azpieragileei aplikatuko zaizkie Googleren Transferentzia mugatu guztiei dagokienez; eta,

B. gainera, Bezeroaren fakturazio-helbidea Herrialde egoki batean badago, ereduzko Kontratu-klausulak (datuen Tratamendu-eragile izatetik EBko datuen Tratamendu-eragile izatera pasatzeko) aplikatuko dira (aintzat hartu gabe Bezeroa Tratamenduaren arduradun edo Tratamendu-eragile den), Googleren eta Bezeroaren arteko Transferentzia mugatuei dagokienez.

edo ii. Googleren helbidea ez badago Herrialde egoki batean:

A. ereduzko Kontratu-klausulak (datuen Tratamenduaren arduradun izatetik EBko datuen Tratamendu-eragile izatera pasatzeko) aplikatuko dira edo ereduzko Kontratu-klausulak (datuen Tratamendu-eragile izatetik EBko datuen Tratamendu-eragile izatera pasatzeko) (aintzat hartuta Bezeroa tratamenduaren arduradun edo tratamendu-eragile den) Bezeroaren eta Googleren arteko Transferentzia mugatuei dagokienez, baldin eta transferentzia horiek EBko DBEOren edo Suitzako FDParen mende badaude.

B. Ereduzko Kontratu-klausulak (datuen Tratamenduaren arduradun izatetik Erresuma Batuko datuen Tratamendu-eragile izatera pasatzeko) aplikatuko dira (aintzat hartuta Bezeroa tratamenduaren arduradun edo tratamendu-eragile den) Bezeroaren eta Googleren arteko Transferentzia mugatuei dagokienez, baldin eta transferentzia horiek Erresuma Batuko DBEOren mende badaude.

4. **EMEA eskualdetik kanpoko Bezeroen Ziurtapena.** Bezeroaren fakturazio-helbidea EMEA eskualdetik kanpo badago eta Bezeroaren Datu pertsonalen tratamendua Datuak Babesteko Europako Legearen mende badago, Bezeroak hala dagoela ziurtatuko du eta Administrazio Kontsolaren bidez bere Gainbegiratze Agintaritza identifikatuko du.

5. **Neurri eta datu gehigarriak.** Googlek informazio garrantzitsua emango dio Bezeroari Transferentzia mugatuak egiteko, Bezeroaren Datu pertsonalak babesteko Segurtasun-kontrol gehigarriak eta bestelako neurri osagarriak barne:

a. 7.5.1 atalean (Segurtasun-dokumentazioa berrikustea) deskribatutakoaren arabera;

b. Zerbitzuen dokumentazioan (hemen eskuragarria: <https://cloud.google.com/docs>); eta

C. Google Cloud-en Konfiantza eta Segurtasuna web-orrian (hemen eskuragarri: <https://cloud.google.com/security>).

6. **Hutsaltzea.** Bezeroak ondorioztatzen badu, Zerbitzuen egungo erabileran edo aurreikusitako erabileran oinarrituta, Transferentzia-irtenbide alternatiboa edo ereduako Kontratu-klausulak, dagokionaren arabera, ez dutela berme egokirik ematen Bezeroaren Datu pertsonal entzat, Bezeroak berehala hutsal dezake Kontratua komenentziaz, eta Googleri jakinaraziko dio.

7. **Datu-zentroari buruzko informazioa.** Googleren datu-zentroen kokapenari buruzko informazioa hemen dago eskuragarri: <https://cloud.google.com/about/locations/> (Googlek aldi-an-aldian aldatu egiten ditu).

#### 11. **Datuen Tratamendu-azpieragileak**

1. **Datuen Tratamendu-azpieragilea kontratatze baimena.** Bezeroak berriaz baimentzen du 11.2 atalean (Datuen tratamendu-azpieragileei buruzko informazioa) zehaztutako URLeko Gehigarria indarrean sartzen den Datatik aurrera zerrendatutako erakundeen datuen tratamendu-azpieragileen kontratazioa. Gainera, 11.4 atala (Datuen Tratamendu-azpieragileen aldaketei eragozpenak jartzeko aukera) alde batera utzi gabe, Bezeroak, orokorrean, baimena ematen du beste edozein hirugarrenen azpieragile gisa kontratatze ("Datuen Tratamendu-azpieragile berriak").

2. **Datuen Tratamendu-azpieragileei buruzko informazioa.** Datuen Tratamendu-azpieragileei buruzko informazioa, haren funtzioak eta kokapenak barne, hemen dago eskuragarri: <https://workspace.google.com/intl/en/terms/subprocessors.html> (Googlek aldi-an-aldian eguneratzen du Datuen Tratamenduaren Gehigarri honen arabera).

3. **Datuen Tratamendu-azpieragilea kontratatze betekizunak.** Datuen Tratamendu-azpieragilea kontratatzean, Googlek:

a. honako hau bermatuko du idatzizko kontratu baten bidez:

i. Datuen Tratamendu-azpieragileak Bezeroaren Datuak baino ez dituela eskuratzen eta datuak horiek azpikontratatzeko zaizkion betebeharrak betetzeko beharrezkoa den neurrian erabiltzen dituela,

eta Kontratuarekin bat etorritik erabiliko dituela

(Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau barne); eta

ii. Datuak Babesteko Europako Legea Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari aplikagarri bazaio, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan ezarritako datuak babesteko betebeharrak (DBEOren 28.3 artikuluan adierazitakoaren arabera) datuen Tratamendu-azpieragileari ezartzen zaizkio; eta

b. azpikontratatzeko betebeharrak gutzietan eta datuen Tratamendu-azpieragilearen egintza eta ez-egite guztien arduradun izaten jarraituko du.

#### 4. **Datuen Tratamendu-azpieragilearen aldaketei aurka egiteko aukera.**

a. Indarraldian Tratamendu-azpieragile berri bat kontratatzen bada, Googlek kontratazioaren berri emango dio Bezeroari (datuen Tratamendu-azpieragilearen izena eta kokapena eta gauzatuko dituen ekintzak barne), hirugarrenen datuen Tratamendu-azpieragile berria Bezeroaren Datu pertsonalak tratatzen hasi baino 30 egun lehenago, gutxienez.

b. Bezeroak, azpieragile berria kontratatuko dela jakinarazi eta 90 eguneko epean, aurka egin ahalko dio komenentziaz Kontratua berehala hutsalduta, eta Googleri jakinaraziko dio.



## 12. Hodeian Datuak Babesteko Taldea; Tratamenduaren erregistroak

1. Googleren Hodeian Datuak Babesteko Taldea. Hodeian Datuak Babesteko Taldeak laguntza emango du, berehalakoa eta beharrezkoa, Bezeroak Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduari buruz egiten duen edozein kontsultari dagokionez, Kontratuarekin bat etorritz, eta hemen jar daiteke harekin harremanetan:

[https://support.google.com/a/contact/googlecloud\\_dpr](https://support.google.com/a/contact/googlecloud_dpr)

(Administratzaileak bere Administratzailearen Kontura sartu badira) edo Bezeroa jar daiteke harekin harremanetan Googleri hala jakinarazita, aplikagarria den Kontratuan deskribatzen den bezala.

2. Googleren tratamenduaren erregistroak. Googlek gorde egingo du, DBEOK eskatzen duenaren arabera, tratamendu-jardueren dokumentazioa. DBEOK Googlek Bezeroarekin lotutako informazio jakin baten erregistroak bildu eta mantentzeko eskatzen duen neurrian, Bezeroak Administrazio Kotsola erabiliko du informazio hori eman eta zehatz eta eguneratuta mantentzeko. Googlek informazio hori Kontrol-agintaritzen esku jarri ahalko du, DBEOK hala eskatzen badio.

3. Datuen tratamenduaren Arduradunaren eskaerak. Indarraldian, Hodeian Datuak Babesteko Taldeak Bezeroaren Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna dela egiaztatzen duen hirugarren baten eskaera edo jarraibidea jasotzen badu, Googlek Bezeroarekin harremanetan jartzeko aholkatuko dio hirugarrenari.

## 13. Interpretazioa

1. Hurrenkera. Edozein gatazka edo inkoherentziatan:

a. Datuen Tratamenduaren Gehigarri honen eta Kontratuaren gainerako atalen artean, Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau nagusituko da; eta

b. Bezeroaren ereduzko Kontratu-klausulen (erreferentzia gisa Datuen Tratamenduaren Gehigarri honetan sartu dira) eta Kontratuaren gainerako atalen artean (Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau barne), Bezeroaren ereduzko Kontratu-klausulak nagusituko dira.

Argiago azaltzeko, Bezeroak Kontratu bat baino gehiago sinatzen baditu, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honek Kontratu bakoitza banaka aldatuko du.

2. Ohiko ereduzko Kontratu-klausulak. Trantsizio-datatik aurrera, ereduzko Kontratu-klausulek ordeztu eta baliogabetu egingo dituzte 95/46/EE Zuzentarauaren arabera onartutako eta Bezeroak eta Google CLLk sinatutako ereduzko Kontratu-klausulak Honako hau da "Trantsizio-data": (a) Bezeroaren fakturazio-helbidea EMEA eskualdetik kanpo badago eta Bezeroaren Datu pertsonalen tratamendua Datuak Babesteko Europako Legearen mende badago, jarraian adierazitakoetan lehenik gertatzen dena: (i) Bezeroa bezero gisa egiaztatzen den data, 10.4 atalaren (EMEA eskualdetik kanpo Bezeroen egiaztapena), eta (ii) 2021eko urriaren 27a; edo (b) 2021eko irailaren 27a. Google LLC Kontratuaren zati ez bada, Google LLC 13.2 atal honen hirugarren onuradun izango da.

3. Ereduzko Kontratu-klausulak aldatu gabe. Kontratuaren xedapen bakar batek ere (Datuen Tratamenduaren Gehigarri hau barne) ez du ereduzko Kontratu-klausularik aldatu edo ezeztatu nahi, ez eta, Datuak Babesteko Europako Legeari jarraikiz, interesdunen funtsezko eskubide edo askatasunik kaltetu nahi ere.

## 1. gehigarria:

### Datuen tratamenduaren xedea eta xehetasunak Xedea

Googlek tratamendu-eragilearen eta SST Zerbitzuak ematea Bezeroari.

### Tratamenduaren iraupena

Indarraldia gehi Indarraldiaren mugaegunetik Googlek, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honekin bat, Bezeroaren Datu pertsonal guztiak ezabatu bitarteko epea.

### Tratamenduaren izaera eta helburua

Googlek, Datuen Tratamenduaren Gehigarri honi jarraikiz, Bezeroari Zerbitzuak eta SST emateko tratatuko ditu Bezeroaren Datu pertsonalak.

### Datu kategoriak

Bezeroak (edo haren zuzendaritzapean) edo Azken Erabiltzaileek Googleri Zerbitzuen bidez ematen dizkieten datu pertsonalak.

### Interesdunak

Interesdunen artean sartzen dira Bezeroek (edo haren zuzendaritzapean) edo Azken Erabiltzaileek Zerbitzuen bidez Googleri eman dizkieten datuen jabeak.

## 2. gehigarria: Segurtasun-neurriak

Gehigarria indarrean sartzen den Datatik aurrera, Googlek 2. gehigarri honetan deskribatutako neurriak ezarri eta mantenduko ditu.

### 1. Datu-zentroak eta sareko segurtasuna

#### (a) Datu-zentroak.

**Azpiegitura.** Googlek geografikoki banatutako datu-zentroak ditu. Googlek produkzio-datu guztiak fisikoki seguruak diren zentroetan biltegitzen ditu.

**Erreduantzia.** Azpiegituren sistemak akats-puntu bakarrak ezabatzeko eta aurreikusitako ingurumen-arriskuen inpaktua minimizatzeko moduan diseinatu dira. Zirkuitu dualek, konmutadoreek, sareek edo beharrezkoak diren bestelako instalazioek erreduantzia hori ematen laguntzen dute. Zerbitzuen diseinuak aukera ematen dio Googleri etengabe zenbait prebentziozko mantentze eta mantentze zuzentzaile egiteko. Ingurumen-ekipo guztiak eta ingurumena babesteko instalazio guztiak, fabrikatzaileen espezifikazioei edo barneko espezifikazioei jarraikiz, prozesua zehazten duten prebentziozko mantentzeen prozedura guztiak eta horiek gauzatzeko maiztasuna dokumentatzen dute. Datu-zentroko ekipoen prebentziozko mantentzea eta mantentze zuzentzailea aldaketa-prozesu estandar baten bidez programatzen da, dokumentatutako prozedurei jarraikiz.

**Hornidura elektrikoa.** Datu-zentroko hornidura elektrikoaren sistemak erreduantzeak izateko daude diseinatuta, bai eta operazioak etengabe mantentzean (eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan) eragin handirik izan gabe mantendu ahal izateko ere. Gehienetan, hornidura elektriko iturri primario bat ematen da, bai eta iturri alternatibo bat ere, denak gaitasun-maila berekoak, datu-zentroko azpiegituren osagai kritikoetarako. Erreserbako hornidura elektrikoa hainbat mekanismoren bidez hornitzen da, besteak beste, etengabeko elikadura-sistemako (EES) baterien bidez. Bateria horiek hornidura-berme fidagarria ematen dute konpainia elektrikoaren itzalaldi partzialen, itzalaldien, gaintentsioen, behetentsioen kasuan. Halaber, mugatik haragoko maiztasun-baldintzak eskaintzen dituzte. Konpainia elektrikoaren hornidura elektrikoa eten egiten bada, erreserbako hornidura elektrikoa datu-zentroari aldi baterako energia gaitasun osoz eta gehienez ere 10 minutuz (erreserbako sorgailuen sistemak erreleboa hartu arte) emateko dago diseinatuta. Erreserbako sorgailuek segundo batzuen buruan automatikoki abiarazteko eta larrialdiko hornidura elektrikoa nahikoa emateko gai dira, datu-zentroak gaitasun osoz funtziona dezan hainbat egunetako epe batean.



**Zerbitzarietarako sistema eragileak.** Googleren zerbitzariak Linux-en oinarritutako aplikazio pertsonalizatu bat erabiltzen dute aplikazio-ingurunerako. Datuak datuen eta erredundantziaren segurtasuna areagotzeko algoritmo patentatuak erabiliz biltegitzen dira. Googlek berrikuspen-prozesu bat erabiltzen du zerbitzuak emateko kodearen segurtasuna areagotzeko eta produkzio-inguruetan segurtasun-produktuak hobetzeko.

**Jardueraren jarraitutasuna.** Googlek jardueraren jarraitutasun-programak/hondamendiak lehengoratzeko programak diseinatu ditu eta aldian-aldian programatu eta probatu egiten ditu.

## (b) Sareak eta transmisioa.

**Datu-transmisioa.** Datu-zentroak abiadura handiko lotura pribatuen bidez egoten dira konektatuta, datu-zentroen arteko datu-transferentzia segurua eta azkarra izan dadin. Aurrekoen diseinuak ekidin egiten du datuak baimenik gabe irakurtzea, kopiatzea, aldatzea edo ezabatzea transferentzia elektronikoa, garraioan edo datuak biltegitzeko bitartekoetan grabatzen direnean. Googlek Interneteko protokolo estandarren bidez transferitzen ditu datuak.

**Kanpoko eraso-gainazala.** Googlek sareko eta arrotzak detektatzeko gailuen geruza ugari erabiltzen ditu kanpoko eraso-gainazala babesteko. Googlek gerta daitezkeen eraso-bektoreak hartzen ditu aintzat eta berariaz diseinatutako teknologia egokiak txertatzen ditu kanpora bideratutako sistemetan.

**Arrotzen detekzioa.** Arrotzen detekzioaren xedea da gertatzen ari diren eraso-jarduerei buruzko informazioa ematea eta gorabeheri aurre egiteko informazio egokia ematea. Googleren arrotzen detekzioak honako hauek hartzen ditu:

1. Googleren eraso-gainazalaren tamaina eta osaera sendoki kontrolatzea prebentziozko neurrien bidez;
2. detekzio-kontrol adimendunak erabiltzea datuen sarrera-puntuetan; eta
3. arrisku-egoera batzuk automatikoki zuzentzen dituzten teknologiak erabiltzea.

**Gorabeheri erantzutea.** Googlek hainbat komunikazio-kanalen jarraipena egiten du segurtasun-gorabeherak detektatzeko, eta Googleren segurtasun-arloko langileek azkar erantzun egiten diete ezagutzen dituzten gorabeheri.

**Zifratzeko teknologiak.** Googlek eskuragarri dagoen HTTPS (SSL konexio edo TLS konexio gisa ere ezagutzen dena) zifratzea erabiltzen du. Googleren zerbitzariak onartu egiten dute RSA eta ECDSAekin sinatutako kurba eliptiko iragankorreko Diffie Hellman-en gako kriptografikoen trukea. Zuzeneko konfidentzialtasun perfektuko metodo horiek (PFS, perfect forward secrecy) trafikoa babesten laguntzen dute, eta arriskuan jarritako gako baten edo sartzeko kriptografiko baten inpaktua minimizatzen dute.

## 2. Gunerako sarbidea eta kontrolak

### (a) Gunearen kontrolak.

**Datu-zentroan *in situ* dagoen segurtasunerako agentea.** Googleren datu-zentroek segurtasunerako agente bat dute *in situ*, eta hura arduratzen da datu-zentroko segurtasun fisikoko funtzio guztiez, eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan. *In situ* dauden segurtasun-operazioetako langileek telebista-zirkuitu itxiko (TZI) kamerak eta alarma-sistema guztiak gainbegiratzen dituzte. *In situ* dauden segurtasunerako agenteek datu-zentroen barruko eta kanpoko patruilak egiten dituzte erregulartasunez.

**Datu-zentrorra sartzeko prozedurak.** Googlek sarbide-prozedura formalak ditu, datu-zentroetan fisikoki sartzeko baimentzeko. Datu-zentroak sartzeko txartel elektronikoko giltza behar duten eta *in situ* dagoen segurtasun-operatiboari lotutako alarmak dituzten instalazioetan daude. Datu-zentrorra sartzen diren pertsona guztiak identifikatu egin behar dute eta egiaztagiri bat aurkeztu behar diote *in situ* dagoen segurtasunerako agenteari. Enplegatuek, kontratistak eta baimendutako bisitariak baino ezin dira sartu datu-zentrorra. Instalazioetan sartzeko txartel elektronikoko giltza enplegatuek eta baimendutako kontratistek baino ezin dute eskatu. Sartzeko txartel elektronikoko giltza posta elektronikoa bidez eskatu behar da, eta administratzaileak eta datu-zentroko zuzendariak eskatzailea onartu beharko dute. Datu-zentrorra aldi baterako sarbidea behar duten gainerako pertsonak: (i) datu-zentroko administratzaileen aurreko onspena lortu behar dute bisitatu nahi dituzten datu-zentro espeziifikoetan eta barneko eremuetan sartu ahal izateko; (ii)

*in situ* dagoen segurtasunerako agenteak hala eskatuta, datu-zentroko sarrera-erregistro bat sinatu eta (iii) eta hari erreferentzia egin beharko diote, gizabanakoak onespén egokia duela identifikatzeko.

**Datu-zentroan *in situ* dauden segurtasun-gailuak.** Googleren datu-zentroek alarma-sistema bati lotutako txartel elektronikoko giltza eta sarbidea kontrolatzeko sistema biometrikoa erabiltzen dituzte. Sarbidea kontrolatzeko sistemak gizabanako bakoitzaren txartel elektronikoko giltza kontrolatu eta erregistratzen dute, bai eta perimetroko ateetatik, igortze- eta jasotze-eremuan eta beste eremu kritiko batzuetan sartzen direnean ere. Baimendu gabeko eta huts egindako jarduerak eta sartzeko saiakerak sarbidea kontrolatzeko sisteman erregistratzen dira eta ikertu egiten dira, dagokionaren arabera. Merkataritza-jardueretako gunerako eta datu-zentroetarako sarrera baimenduak mugatu egiten dira eremuen eta gizabanakoaren lan-erantzukizunen arabera. Datu-zentroetako suteen aurkako atek alarma dute. Funtzionamenduan dauden TZIko kamerak daude datu-zentroaren barrualdean eta kanpoaldean. Kameren kokapena eremu estrategikoak (besteak beste, perimetroa, datu-zentroaren eraikinerako sartzeko atek eta igortze- eta jasotze-eremua barne) estaltzeko dago diseinatuta. *In situ* dauden segurtasunerako agenteak arduratzen dira TZIko ekipoen jarraipena egin eta haiek erregistratu eta kontrolatzeaz. TZIko ekipok segurtasun-kableen bidez daude konektatuta datu-zentro guztietan. Kamerekin *in situ* grabatzen dute bideo digitaleko grabagailuen bidez, eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan. Zaintza-grabazioak gutxienez 30 egunetz gordetzen dira, jardueraren arabera.

## (b) Sarbidea kontrolatzea.

**Segurtasun-langileak azpiegituran.** Googlek langileentzako segurtasun-politika du eta mantentzen du. Langile horiek segurtasun-arloko trebakuntza izan behar dute langileen trebakuntza-paketearen parte gisa. Googleren azpiegiturako segurtasun-langileak arduratzen dira Googleren segurtasun-azpiegitura etengabe kontrolatzeaz, tratamendu-eragilearen Zerbitzuak berrikusteaz eta segurtasun-gorabeherei erantzuteaz.

**Sarbidea kontrolatzea eta pribilegioak kudeatzea.** Bezeroaren eta erabiltzaileen administratzaileek haien nortasuna egiaztatu behar dute egiaztapen-sistema zentral baten bidez edo sisteman saio bakarrari hasiera emanez, tratamendu-eragilearen Zerbitzuak erabili ahal izateko.

**Datuetarako sarbidearen barneko prozesuak eta politikak.** Googleren datuutarako sarbidearen barneko prozesuak eta politikak diseinatuta daude baimendu gabeko pertsona edo sistemek datu pertsonalak tratatzeko erabiltzen diren sistemetara sarbidea izan ez dezaten. Googlek helburu hauekin diseinatzen ditu bere sistemak: (i) baimendutako pertsonak baino ez sartzeko eskuratzeko baimena duten datuetara; eta (ii) ziurtatzeko datu pertsonalak ez direla baimenik gabe irakurri, kopia, aldatu edo ezabatuko haiek tratatzean, erabiltzean eta grabatu ondoren. Sistemak bidezkoak ez diren sarbideak detektatzeko daude diseinatuta. Googlek sarbidea kontrolatzeko kudeaketa-sistema zentralizatua erabiltzen du, langileen produkzio-zerbitzarietarako sarbidea kontrolatzeko, eta baimendutako langile batzuei baino ez die ematen sarbidea. Googleren egiaztapen- eta baimentze-sistemek SSHP egiaztapenak eta segurtasun-gakoak erabiltzen dituzte, eta Googleri sarbide-mekanismo seguruak eta malguak emateko daude diseinatuta. Mekanismo horiek guneko *hostetara*, erregistroetara, datuetara eta konfigurazio-informaziora sartzeko eskubide baimenduak emateko daude diseinatuta. Googlek erabiltzaileen ID bakarrak erabiltzeko eskatzen du, bai eta pasahitz seguruak, bi faktoreen egiaztapena eta gainbegiratutako sarbide-zerrendak erabiltzeko ere, kontua baimenik gabe erabiltzeko aukera minimizatzeko. \_Sarbide-eskubideak honako hauen arabera eman edo aldatzen dira: baimendutako langileen lan-erantzukizunak; baimendutako zereginak egiteko beharrezkoak diren lan-funtzioen betekizunak eta informazio-behar zehatzak. Gainera, sarbide-eskubideak Googleren datuetara eta informaziora sartzeko politikaren arabera eman edo aldatuko dira. Onarpenak aldatuta guztien auditoretzen erregistroak jasotzen dituzten lan-fluxuen tresnekin kudeatzen dira. Sistemetarako sarbidea erregistratu egiten da auditoretzen erregistroa sortzeko eta, hala, erantzukizunak ebazteko. Egiaztapenerako pasahitzak erabiltzen direnean (adibidez, lan-estazioetara sartzeko), industriaren jardunbide estandarrei jarraitzen dieten pasahitzen politikak ezartzen dira, gutxienez. Estandar horiek pasahitzak berriz erabiltzeko mugak eta pasahitzaren gutxienezko segurtasun-betekizunak ezartzen dituzte. Babestu behar den informaziorako (adibidez, kreditu-txartelei buruzko datuak) sarbidea izateko, Googlek hardwarearen *tokenak* erabiltzen ditu.

## 2. Datuak

### (a) Datuak biltegitratzea, isolatzea eta erregistratzea.

Googlek datuak enpresa anitzeko inguru batean biltegitratzen ditu datuak, Googleren jabetzako zerbitzarietan.

Kontrakoa adierazten duen edozein jarraibide betez (adibidez, datuen kokapena hautatzeko jarraibidea), Googlek geografikoki sakabanatuta dauden

datu-zentro askoren artean erreplikatzeko Bezeroaren Datuak. Googlek, halaber, logikoki isolatzen ditu Bezeroaren Datuak eta modu logikoan bereizten ditu Azken Erabiltzaile bakoitzaren datuak eta beste Azken Erabiltzaile batzuen datuak, eta Azken Erabiltzaile autentifikatu baten datuak ez zaizkio erakutsiko beste Azken Erabiltzaile bati (ez bada aurreko Azken Erabiltzaileak edo administratzaile batek datuak partekatzea baimentzen duela).

Bezeroari datuak trukatzeko berariazko politiken gaineko kontrola emango zaio. Politika horiek, Zerbitzuen funtzionaltasunarekin bat etorritik, Bezeroari aukera emango diote azken erabiltzaileei aplikagarri zaien produktuaren erabilera partekatua konfigurazioa zehazteko helburu zehatzetarako.

Bezeroak Googlek Zerbitzuen bidez eskura jartzen dion erregistro-funtzioa erabil dezake.

#### **(b) Zerbitzuz kanpoko diskoak eta diskoak ezabatzeko Politika.**

Datuak biltzen dituzten disko batzuek errendimendu-arazoak, hardwarearen errore edo akatsak izan ditzakete, eta horren ondorioz, baliteke zerbitzutik kentzea ("Zerbitzuz kanpoko Diskoak"). Zerbitzuz kanpoko disko bakoitzari datuak ezabatzeko hainbat prozesu aplikatzen zaizkio ("diskoak ezabatzeko Politika") Googleren instalazioetatik berriz erabiltzeko edo suntsitzeko atera baino lehen. Zerbitzuz kanpoko Diskoak urrats anitzeko prozesu batean ezabaten dira eta gutxienez bi balidatzaile independentek egiaztatzen dute erabat ezabatu direla. Ezabatze-prozesuaren emaitzak zerbitzuz kanpoko Diskoaren serie-zenbakiaren bidez erregistratzen dira, jarraipena egin ahal izateko. Azkenik, zerbitzuz kanpoko Diskoa inbentariara itzultzen da berriz erabili eta banatzeko. Hardwarearen akats baten ondorioz zerbitzuz kanpoko Diskoa ezin bada ezabatu, modu seguruan biltegiratzen da suntsi daitekeen artean. Instalazio bakoitza aldi-aldi ikuskatzen da, diskoak ezabatzeko Politika betetzen dela zaintzeko.

#### **4. Langileen segurtasuna**

Googleren langileek enpresaren jarraibideekin bat datorren jokaera izango dute, konfidentziasunari, enpresa-etikari, erabilera egokiari eta estandar profesionali dagokienez. Googlek aurrekariaren zentzuzko egiaztapenak egiten ditu, legeak baimentzen duen neurrian, eta lan-legeriarekin eta aplikagarriak diren tokiko lege-xedapenekin bat etorritik.

Langileei eskatzen zaie konfidentziasun-kontratu bat egiteko, Googleren konfidentziasun- eta pribatutasun-politikak jaso izana jakinarazi behar dute, eta politika horiek bete. Langileen segurtasun-arloko prestakuntza ematen zaie. Bezeroaren Datuak prozesatzen dituzten langileei exijitu egiten zaie bete ditzatela bere lanpostuen arabera betekizun gehigarriak (adibidez, egiaztapenak). Googleko langileek ez dituzte bezeroaren datuak baimenik gabe prozesatuko.

#### **5. Datuen Tratamendu-azpigeragileen segurtasuna**

Datuen Tratamendu-azpigeragilea kontratatu aurretik, Googlek datuen Tratamendu-azpigeragileen segurtasun- eta pribatutasun-jardunbideen auditoretza egingo du, ziurtatzeko datuen Tratamendu-azpigeragileek datuak eskuratzeko egokia den segurtasun- eta pribatutasun-maila eskaintzen dutela, bai eta kontratatzen zaizkien zerbitzuen irismena egiaztatzeko ere. Googlek Tratamendu-azpigeragileak aurkeztutako arriskuak Datuen Tratamenduaren Gehigarri honen 11.3 atalean (Datuen Tratamendu-azpigeragilea kontratatze betekizunak) deskribatutako betekizunen arabera aztertu ondoren, datuen Tratamendu-azpigeragileari eskatzen zaio konfidentziasun- eta pribatutasun-klausula egokiak biltzen dituen kontratua egiteko.